EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EGOITZA DUTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BEREN SEKTORE PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ERAKUNDEETAKO ENPLEGATU PUBLIKOEI HELDUEN EUSKALDUNTZERAKO OINARRIZKO CURRICULUMAREN ARABERAKO EUSKARA IKASTAROAK (HEOC 2015) AUTOIKASKUNTZA SISTEMAREN BIDEZ EMATEKO ESPARRU AKORDIOAREN ADMINISTRAZIO KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIA (G-22/212)

AURKIBIDEA

Or.

I.- ESPARRU-AKORDIOAREN XEDAPEN OROKORRAK....4

1. XEDEA 4
2. ARAUBIDE JURIDIKOA 5
3. KONTRATAZIO-ORGANOA 6
4. ESPARRU-AKORDIOAREN AURREIKUSITAKO BALIOA ETA OINARRITUTAKO KONTRATUEN GEHIENEKO AURREKONTU ORIENTAGARRIA 6
5. PREZIOA 6
6. INDARRALDIA ETA LUZAPENA 7

II.- ESPARRU-AKORDIOKO ESLEIPENDUNAK AUKERATZEKO PROZEDURA 7

7. ESLEIPEN PROZEDURA 7
8. KONTRATAZIO-MAHAIA 7
9. ESPEDIENTE-ZENBAKIA 9
10. PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK ETA KAUDIMEN-IRIZPIDEAK 9
11. ONENAK DIREN ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.... 10
12. ORRIEN ETA INFORMAZIO GEHIGARRIAREN ESKURAGARRITASUNA 12
13. ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO BETEKIZUN FORMALAK, TOKIA ETA EPEA 13
14. «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA» A GUTUN-AZALEAN SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA. 14
15. «ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK» B GUTUN-AZALAREN BARRUAN SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.... 15
16. «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA» A GUTUN-AZALA IREKI ETA KALIFIKATZEA.... 15

17. ESKAINTZAK IREKITZEA 16
18. ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA PUNTUAZIO ONENAK IZAN DITUZTEN ENPRESEI ESKAERA EGITEA 17
19. HAUTATUTAKO ENPRESEK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA..... 17
III - ESLEIPENA ETA ESPARRU-AKORDIOA FORMALIZATZEA..... 19
20. ESLEIPENA ETA JAKINARAZTEA 19
21. UKO EGITEA EDO ATZERA EGITEA 19
22. ESPARRU-AKORDIOA FORMALIZATZEA 19
IV - ESPARRU-AKORDIOAREN ERAGIN, BETETZE ETA IRAUNGITZEARI BURUZKO XEDAPENAK .....
23. ESLEIPENDUNEK ARDURADUNAK IZENDATZEA 20
24. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK 20
25. ESPARRU-AKORDIOAREN XEDEA ALDATZEA 20
26. ESPARRU-AKORDIOA EBAZTEKO KAUSAK 20
27. KONTRATAZIOAREN ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA 21
28. JURISDIKZIO ESKUDUNA 21
V.- ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUEN XEDAPEN OROKORRAK, ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA .....
29. OINARRITUTAKO KONTRATUEN ARAUBIDE JURIDIKOA 22
30. KONTRATU MOTA ETA XEDEA 22
31. OINARRITUTAKO KONTRATUAK ONARTZEAREN ETA FORMALIZATZEAREN BETEBEHARRAK 22
32. PREZIOA ETA ORDAINKETAK 22
33. EGIKARITZE-EPEA 23
34. BERMEAK 23
35. KONTRATAZIO-ORGANOA ETA KONTRATUAREN ARDURADUNA 24
36. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK 24
37. OINARRITUTAKO KONTRATUAK FORMALIZATZEA 25
VI.- OINARRITUTAKO KONTRATUEN EFEKTUEI, BETETZEARI ETA IRAUNGITZEARI BURUZKO XEDAPENAK .....
38. EPEAK BETETZEA ETA KONTRATUA EGIKARITZEN BERANDUTZEA 26
39. KONTRATUA EGIKARITZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE KLAUSULA BATZUK 26
40. EGIKARITZA-BALDINTZA BEREZIAK 28
41. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA 32
42. EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALERAKO ESKUBIDEA 36
43. LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI EGINDAKOAK 38

44. PENALITATEAK 38
45. KONTRATUA ALDATZEA 38
46. KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA..... 39
47. KONTRATUAREN AMAIERA 41
48. KONTRATUA IRAUNGITZEA ETA EBAZTEA 42
49. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK 42
50. JURISDIKZIO ESKUDUNA 42

ERANSKINAK 44

I. KONTRATUAREN ZENBAIT KLAUSULA BEREZIRI BURUZKO INFORMAZIOA.....
I.1. ERANSKINA: LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN KALKULUA
I.2. ERANSKINA: LAN KONTRATUEN BALDINTZEI BURUZKO DATUAK
I.3. ERANSKINA: FORMULA MATEMATIKOEN SIMULAZIOA

II.- A GUTUN AZALEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

II.1. ERANSKINA: EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)
II.2. BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA
II.2.1. ERANSKINA: BITARTEKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN DEKLARAZIOA
II.2.2.ERANSKINA: BITARTEKOAN ATXIKITZEKO KONPROMISOAREN KOADROA
II.3. ERANSKINA: INFORMAZIOEN KONFIDENTZIALTASUNA DEKLARATZEKO EREDUA
II.4. ERANSKINA: ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA OSATZEKO KONPROMISOA.
II.5. ERANSKINA: KONTRATATURIKO LANA EGIN BEHAR DUTEN LANGILEEKIKO KOMPROMISOAK
II.6. ERANSKINA: ENPRESA TALDE BEREKO ENPRESAK
II.7. ERANSKINA: ESKAINTZA ZEIN LOTETARAKO AURKEZTUKO DEN

III.1 ERANSKINA: ESKAINTZA EKONOMIKOA

V.1. ERANSKINA: KONTRATUAREN IRAUNALDI OSOAN BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENA ETA BITARTEKOAK IZATEA
V2. ERANSKINA: SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEA
V.3. ERANSKINA: BANKU ABALAREN EREDUA
V.4. ERANSKINA: KAUZIO ASEGURU EREDUA
V.5. ERANSKINA: BERME AUKERA

VII. ERANSKINA: BALIABIDEAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA, OINARRITUTAKO KONTRATUEN ESLEIPEN FASEAN AURKEZTU BEHARREKOA

VII.2 ERANSKINA: DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAREN ENKARGUA
VIII. ERANSKINA: DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

I.- ESPARRU-AKORDIOAREN XEDAPEN OROKORRAK

1. XEDEA

Esparru Akordio honen helburua honako hau da:

a) HABErekin lankidetzan aritu daitezkeen euskaltegiak eta Euskararen autoikaskuntzarako zentru homolagatuak hautatzea Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Administrazio Publikoetako eta beren sektore publikoa osatzen duten erakundeetako enplegatu publikoei Pertsona Helduen Euskara Irakaskuntzarako Oinarrizko Curriculumaren (HEOC - 2015) araberako euskara-ikastaroak irakasteko autoikaskuntza sistemaren bidez, dagokien ebaluazioa barne, honako jarduera-esparru hauetan:

1.a.1 Araban irakatsiko diren ikastaroak

1.a.2 Bizkaian irakatsiko diren ikastaroak

1.a.3 Gipuzkoan irakatsiko diren ikastaroak

1.a.4. Aldi berean lurralde-eremu desberdinetako pertsonalari irakatsi beharreko ikastaroak.

Jardun-esparru hauetako bakoitza Esparru Akordio honen sorta bat izango da, eta, ondorioz, sorta bakoitzean hautatutako operadoreek hartuko dute parte Esparru Akordio honetan oinarritutako kontratuen esleipenaren ondorioetarako.

Esparru-akordio honetatik kanpo geratuko da enplegatu publikoak euskara autoikasteko ikastaroak kontratatzea, baldin eta, zerbitzua ematen duen administrazio edo erakundearen jarraibideen arabera, zuzenean eta banaka aukeratu ahal badu zein ikastetxetan matrikulatzen den, lan-ordutegitik kanpo egindako ikastaroak direlako.

Esparru Akordioa gehienez ere BOST operadorerekin gauzatuko da jarduera-esparru bakoitzean, agiri honetan ezartzen diren balorazio-irizpideekin bat, betiere, hautaketa-irizpideetara doitzen diren interesdun kopurua edota esleipen-irizpideei erantzuten dieten eskaintza onargarrien kopurua nahikoa bada.

B) Esparru Akordio honetan oinarritzen diren kontratuen esleipen-prozedura ezartzea.

Zerbitzuek honako kode hauek dituzte, Produktuen Hiztegi Komunaren arabera:
- 80400000-8 Helduentzako irakaskuntza zerbitzuak eta irakaskuntzako beste zerbitzu batzuk

2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Honako dokumentu eta arau juridiko hauek zehazten dute Esparru Akordioa:

-Administrazio Klausula Berezien Agiria eta Oinarri Teknikoen agiria, kontratu-izaera dutenak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 122. eta 188. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

-Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, Kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

-Azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 9/2017 Legea (aurrerantzean, SPKL).

-Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa (aurrerantzean, APKLAO).

-Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea hein batean garatzen duena.

-116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa.

-29/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortarazteko eta Euskaltegiak araupetzezkoa.

-179/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa euskal autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena.

-Agindua, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) ezartzen duena.

-Agindua, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikaaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautzen dituena, eta euskara-ikasle helduentzak dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituena.

-Baita honako hauek ere, kontratuari eragiten dioten heinean:

-3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen datu pertsonalen eta horien zirkulazio librearen trataerari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.
-59/2003 Legea, abenduaren 19koa, Sinadura Elektronikoari buruzkoa.
-34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikoari buruzkoa.
-3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.
-4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa.
-3/2007 Legea Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.
- Eusko Jaurlaritzaren Batzordearen 2019ko apirilaren 9ko Akordioa, Euskal Herriko

Agintariaren Aldizkaritzan Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 9ko 42/2019 Ebazpenaren bidez argitaratua, zeinaren bidez honako erabaki hau argitara ematen baita: soldata-arrakalaren aurkako neurriak eta gizonek eta emakumeek ordainsari bera jasotzeko klausulak kontratazio publikoan sartzeko jarraibidea onartzen duena.
-Agindua, 2004ko abuztuaren 16koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketen izapidetze telematikoari buruzkoa.
-Uztailaren 3ko 15/2007 legea, lehia babesteko legea.
-Eta Estatu mailako nahiz Euskal Autonomia Erkidegoaren mailako kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, esparru horretan aplikatzekoa bada.

Modu osagarrian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015 Legea) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015 Legea) aplikatuko dira.

Kontratuaren klausulak, edozein terminotan, edota kontratuko bestelako dokumentuak, jarraibideak edo hitzartutakoa egikaritzean aplikatzekoak diren araudiak ez ezagutzeak ez du esleipenduna salbuetsiko horiek betetzetik.

3. KONTRATAZIO-ORGANOA

HABEren zuzendari nagusia da Esparru Akordioaren kontratazio-organoa.

4. ESPARRU-AKORDIOAREN AURREIKUSITAKO BALIOA ETA OINARRITUTAKO KONTRATUEN GEHIENEKO AURREKONTU ORIENTAGARRIA

SPKLren 101. artikuluan ezarritakoarekin bat, Esparru Akordioaren balio zenbatetsia, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo utzita eta Esparru Akordioaren guztizko iraupenerako jasotzen diren kontratu guztiak aintzat hartuta, 150.000,00 eurokoa da.

Beraz, Esparru Akordioaren guztizko indarraldirako ondorioztatzen diren kontratu guztien gutxi gorabeherako aurrekontu maximoa 150.000,00 eurokoa da; jarduera hori BEZetik salbuetsita dago, euskara irakasteko zerbitzua delako xede horretarako sortutako eta baimendutako erakundeen aldetik. Zenbateko hori urteka banatuko da, honela:

2022. urtea	**2023. urtea**
50.000 euro	100.000 euro

Administrazio kontratatzaileak ez du ikastaro kopuru zehatz bat kontratatzeko konpromisorik hartzen, esparru-akordio honetako kontratazioak indarraldian sortzen diren premien araberakoak izango direlako.

5. PREZIOA

Ikastaroen prezioak Esparru Akordioan partaide izateko aukeratzen diren operadoreek egindako eskaintzen arabera gelditukо dira ezarrita, lizitazio-oinarriaren prezio unitario hauek kontuan harturik:

1.- Urriaren 1etik ekainaren 30era bitartean irauten duten ikastaroak (190 orduko

ikastaroak): 1.874 euro ikasle/ikastaroa.
2.- Hiruhilabeteko ikastaroak (75 orduko ikastaroak): 740 euro ikasle/ikastaroa.
3.- Iraupen desberdineko ikastaroak: 10 €/ordu/ikasleko

Prezio horietan sartuta daude aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta prestazioa emateak edo administrazio-klausula zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak betetzeak esleipendunari eragingo dion beste edozein gastu ere.

Bestalde, gehienezko prezioak dira adierazitakoak. Ondorioz, prezio horiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

Prezio unitario maximo horiek berdintzen dituzten eskaintzek ez dute punturik jasoko plegu honen 11.2.2. klausularen atalean ezarritakoaren arabera.

Eskaintzak balio anormalekoak edo neurriz kanpokoak direla ulertu ahal izango da egoera hauetan: bi lizitatzaile edo gehiago daudenean, guztiek aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikotik % 15 baino gehiago jaisten direnak. Hala ere, hiru eskaintza baino gehiago daudela, guztiek aurkeztutako eskaintzen batez bestekotik % 15 baino gehiago igotzen direnak daudenean, eskaintza altu horiek kontuan hartu gabe eta gainerakoekin bakarrik kalkulatuko da batez besteko berria, betiere gainerako eskaintzak gutxienez hiru direla gertatzen bada, bestela guztien arteko hiru eskaintza txikienekin kalkulatuko baita batez bestekoa.

Esparru Akordioaren bidez hautatutako operadoreek eskaintzen dituzten prezio unitarioak ez dira berrikusiko Esparru Akordioaren iraupen guztian.

6. INDARRALDIA ETA LUZAPENA

Esparru-akordio honen iraupena bat etorriko da sinatzen den egunetik haren babesean esleitutako azken kontratua amaitu arteko aldiarekin, zeina, gehienez ere, 2023ko abenduaren 23an amaituko baita.

Esparru Akordioa ezin izango da luzatu.

II.- ESPARRU-AKORDIOKO ESLEIPENDUNAK HAUTATZEKO PROZEDURA

7. ESLEITZEKO PROZEDURA

Esparru Akordio hau ez dago araudi harmonizatuaren menpe (22.1c artikuluak aipatzen dituen zerbitzu bereziak, IV Eranskinean), eta prozedura IREKIAREN bidez esleituko da, zenbait esleipen-irizpiderekin**.**

Prozeduraren bidez, onenak diren operadoreak hautatuko dira, betiere, hautaketa-irizpideetara doitzen diren interesdun edo eskaintza onargarri nahikoa egonez gero.

Lizitazioa Kontratatzailearen Profilean (www.contratacion.info edo www.contratacion.euskadi.eus) argitaratuko da, SPKLren 135 artikuluan aurreikusi bezala.

8. KONTRATAZIO-MAHAIA

Akordio Esparruaren eta bertan oinarritutako kontratuen esleipenerako, kontratazio-

organoari lagunduko dion kontratazio-mahaia HABEren kontratazio-mahaia da, eta honako kide hauek osatzen dute:

- Mahaiburua: Alfredo Badiola Arnedo, HABEren Kudeaketa Zerbitzuko Arduraduna. Ordezkoa: HABEren Hizkuntza-didaktika Zerbitzuaren Arduraduna.
- Dorleta Ugalde Usandizaga, kontratazio-organoak izendatutako batzordekidea, HABEren Ikuskatzailetzaren Arlo Arduraduna. Ordezkoa: Maite Aginagalde Garitano. Ikuskatzailetza ataleko Teknikaria.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria
- Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkaria.
- Batzordekide-idazkaria: Itziar Azurza Sorrondegi, HABEren Aholkularitza Juridikoko Arlo Arduraduna, Aholkularitza Juridikoko eta Mahaiaren Idazkaritzako funtzioak beteko dituena. Ordezkoa: Gorka Estevan Muguerza, HABEren Aholkulari Juridikoa.

Kontratazio-mahaiaren osaera baliozkoa izan dadin, mahaian egon beharko dute kontratazio-organoko presidente, idazkari eta aholkularitza juridikoko lanak esleituta dituztenek. Hala ere, kontratuaren xedearekin zerikusia duten erabaki teknikoak hartzeko egiten dituenean bilerak kontratazio-mahaiak, mahaiaren osaera baliozkoa izan dadin beharrezkoa izango da kontratazio-organoari aholkularitza teknikoa emateko eginkizuna esleituta duen kidea ere bertan egotea.

Ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako funtzioei eragin gabe, kontratazio-mahaiak honako funtzio hauek beteko ditu:

1. Epez kanpo aurkeztutako eskaintza edo eskaerak onartezintzat aitortuko ditu.
2. Egiaztatuko du lizitatzaileek aurretiazko baldintzak betetzeari buruz eskaintzen duten dokumentazioa, A gutun-azalean jasotzen dena, zuzena dela.
3. Erabakiko du zein lizitatzaile utzi behar diren prozeduratik kanpo, agiri honetan adierazitako gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen direla behar bezala ez egiaztatzeagatik.
4. Aurkeztutako proposamenak irekiko ditu eta jendaurrean adieraziko du edukia.
5. Proposamenak baloratuko ditu, SPKLren 150. eta 151. artikuluetan aurreikusi bezala, eta beherako balorazio-ordenan sailkatuko ditu. Egiaztatuko du uztailaren 3ko 15/2007 lehia babesteko legeak xedatutakoa bete dela.
6. Baldin eta aztertutako proposamenen bat anormal edo neurriz kanpokotzat kalifika litekeela iruditzen bazaio, SPKLren 149. artikuluak kasu horretarako xedatzen duen prozeduraren izapideak egingo ditu, eta, artikulu horretako 4. atalaren arabera, kontratazio-organoari proposatuko dio onartzeko ala baztertzeko.
7. Lizitatzaileen nortasun juridikoa, jarduteko ahalmena, ahalduntzea eta kaudimen ekonomiko finantzazko, tekniko eta profesionala, orobat SPKLren 140. artikuluan aipatzen diren gainerako betebeharrak, izaera orokorrarekin egiaztatzeko dokumentazioa kalifikatuko du eta, hala dagokionean, interesdunei jakinaraziko dizkie dokumentazioan hautematen dituen akats eta ez-betetze zuzengarriak. Horretarako, lehenagotik elkartuko da mahaia, kide guztiei behar besteko aurrerapenez dei eginda.
8. Onenak ziren eskaintzak aurkeztu dituzten lizitatzaileak hautatzea eta esleitzea proposatuko du. Aurkeztutako eskaintza bat bera ere ez bada onartzeko modukoa, lehia hutsik lagatzeko proposatuko du mahaiak. Halaber, proposamenak aztertzean hautemango balu prestaketa-arauren bat edo kontratua esleitzeko prozedura-arauren bat urratu dela, aukera izango du urratze hori kontratazio-organoari azaltzeko, behar bezala justifikatuta, eta atzera egiteko deklarazioa egin dezala proposatzeko.

9. ESPEDIENTE-ZENBAKIA

Espediente-zenbakia **G22/212**

10. PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK ETA KAUDIMEN-IRIZPIDEAK

1. Esleipen-prozeduran pertsona natural edo juridikoek parte har dezakete, espainiar edo atzerritarrak izan, jarduteko ahalmen osoa badute, ez badaude kontratazio-debeku baten mende, agiri honetan ezartzen diren kaudimen-baldintzak betetzen badituzte eta Akordio Esparrutik ondorioztatzen diren kontratuak behar bezala egikaritzeko elementu pertsonal eta material aski badituzte erakundean, orobat jarduera edo prestazioa eskaintzeko bete beharreko enpresa- edo lanbide-gaikuntza badute (agiri honen 1. klausulan identifikatzen da).

   Pertsona juridikoek soilik parte hartu ahal izango dute, haien sorrera-estatutu edo -arauen arabera, agiri honen 1. klausulan identifikatzen diren prestazioak bere helburu, xede edo jarduera-esparruaren barruan badaude.

2. Kaudimen-eskakizunak:

   Ekonomia- eta finantza-kaudimena
   Lizitatzaileek 200.000,00 eurotik gorako negozio-bolumena izan behar dute pertsona helduen euskalduntzearen esparruan, 2019, 2020 eta 2021 ekitaldietan. Bolumen hori kalkulatzeko, ikasleen matrikulaziotik eratorritako diru-sarrera guztiak zenbatuko dira (zuzenean ikasleek ordaindutako matrikulak eta euskaltegi bakoitzean edo autoikaskuntza zentro homolagatu bakoitzean egindako matrikulen ondorioz jasotako diru-laguntzak).

   Gaitasun teknikoa edo profesionala
   Lizitatzaileek ondoren zehaztutako bi baldintzak bete beharko dituzte:

   1. Akordioan parte hartu nahi dutenek Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako homologatutako zentroen Erregistroan erregistratuta egon behar dute, gutxienez, azken hiru urteetan.

2. Administrazioak esparru-akordioak burutu ditzake xede horretarako eta aldi baterako eratu diren enpresa elkarteekin, eta ez da beharrezkoa izango elkartea eskritura publikoan formalizatzea, harik eta Esparru Akordioa esleitu arte. Enpresari horiek solidarioki behartuta geratzen dira kontratazio-organoaren aurrean eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu behar dute, Esparru Akordio honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko eta eskubideetan jarduteko behar adinako botorearekin, enpresek zenbateko esanguratsuak kobratzeko eta ordaintzeko baterako botereak esleitzeko aukerari eragin gabe.
3. **Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ez banaka eta ez aldi baterako enpresa-talde bateko kide gisa, esparru-akordio honetako baldintza-plegu honen 1.a) atalean adierazitako jarduera-esparru bakoitzerako. Bakarka parte hartzen dutenek ezin izango dute parte hartu aldi baterako talde batean jarduera-esparru edo lurralde berean**.

   Edozelan ere, **LIZITATZAILE BAKOITZAK PROPOSAMENA AURKEZTU AHAL IZANGO DU ZENBAIT JARDUERA-ESPARRU EDO LURRALDETARAKO, EDO**

GUZTIETARAKO, BERE HAUTAPENA ESKAINTZAN BEHAR BEZALA ADIERAZITA.

Arau hauek hausten dituztenek aurkezten dituzten eskaintzak ez dira onartuko, bat bera ere ez.

4. Eskaintza aurkezteak esan nahi du lehiakideek agiri honetako klausulak baldintzarik gabe onartzen dituela, eta aurkeztutako datu guztien zehaztasunari buruzko erantzukizun-adierazpena egiten duela, baita prestazioaren xede den kontrataziorako eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzeari buruzkoa ere, baita gainerako kontratu-dokumentuetatik eratorritakoak ere, erreserbarik eta salbuespenik gabe. Kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematen dio ere kontratua esleitzeko prozeduraren edozein unetan kontsulta ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estatu baten datu-base nazionalean jasotako datuak, betiere, azken kasu horretan doan eskuragarria bada. Operadore ekonomikoak ez daude behartuta erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztera.

5. Lizitatzaileek bi hilabetez mantendu behar dituzte eskaintzak, eskaintzak irekitzen diren egunetik zenbatzen hasita. Epe hori beste hamabost egun baliodunez luzatuko da, baldin eta SPKLeko 149 artikuluak aipatzen dituen izapideei jarraitzea beharrezkoa bada.

   Esleipenaren aurkako errekurtsoak aurkezteko epeak amaitu eta inork ez badu halakorik aurkeztu, aurkeztu dituen lizitatzailearen esku geratuko dira proposamenekin batera aurkeztutako agiriak.

   Hala ere, esleipena irmo bihurtzen denetik hiru hilabete pasatutakoan, Administrazioak erabaki ahal izango du aurkeztutako agiriak suntsitzea, baldin eta lizitatzaileek ez badituzte berreskuratu.

11. ONENAK DIREN ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK ESPARRU AKORDIOA ESLEITZEKO

Onenak diren eskaintzak hautatzeko, jarraian adierazten diren irizpideak aplikatuko dira. Eskaintzen baloraziorako irizpideok 100 puntu batuko dituzte guztira. Irizpideak honako hauek dira:

11.1 BALIO-IRITZI BATEAN OINARRITUTA APLIKATU BEHARREKO BALORAZIO IRIZPIDEAK: EZ

11.2. FORMULAK ERABILIZ APLIKATUKO DIREN BALORAZIO IRIZPIDEAK

11.2.1. KALITATEAREN ALDEKO IRIZPIDEAK

A) Ikasleak hartzeko gaitasunari dagokion irizpidea: 55 puntu. Euskaltegiak edo autoikaskuntzarako zentroak dituen matrikulen arabera neurtuko da. Ondorio hauetarako, 190 eskola-orduko modulu estandarra izango da autoikaskuntza-matrikulen kopurua zenbatzeko oinarria; beraz, modulu standarrari matrikula bat egokituko zaio, eta beste iraupeneko ikastaroen matrikulak zenbatzean modulu standarren araberako proportzioa aplikatuko da.

A.1) Lurralde bakar bateko enplegatu publikoekin gauzatu beharreko ikastaroak esleitzeko (plegu honen 1. atalean zehaztutakoak: 1.a.1 Araba, 1.a.2. Bizkaia, 1.a.3. Gipuzkoa). Parametro hau hiru lote horietan neurtzeko, atal honetan eman beharreko guztirako puntuen gainean ondoren zehaztutako ehunekoa aplikatuz ateratzen den puntu-kopurua esleituko zaio lizitatzaile bakoitzari: HABEk diruz laguntzeko baldintzak betez, etorkizuneko finantziazio-deialdietarako euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentroei **2021/2022 ikasturtean martxoaren 31ra arte dagokion lurraldean onartu dizkien euren ekimeneko autoikaskuntza-matrikulen kopuru osoaren gainean**, HABEk diruz laguntzeko baldintzak betez, etorkizuneko finantziazio-deialdietarako dagokion lurraldean **lizitatzaile bakoitzari** ikasturte horretan martxoaren 31ra arte **onartu dizkion autoikaskuntza-matrikulen kopurua aplikatuz** sortzen den ehunekoa.

A.2) Lurralde bat baino gehiagoko enplegatu publikoekin gauzatu beharreko ikastaroentzat (1.a.4 sorta): Parametro hori neurtzeko, atal honetan eman beharreko guztirako puntuen gainean ondoren zehaztutako ehunekoa aplikatuz ateratzen den puntu-kopurua esleituko zaio lizitatzaile bakoitzari: HABEk diruz laguntzeko baldintzak betez, etorkizuneko finantziazio-deialdietarako euskaltegi pribatuei eta euskararen autoikaskuntzarako zentroei **2021/2022 ikasturtean martxoaren 31ra arte Euskal Autonomia Erkidego osoaren esparruan onartu dizkien euren ekimeneko autoikaskuntza-matrikulen kopuru osoaren gainean**, HABEk diruz laguntzeko baldintzak betez, aipatu ondorioetarako **lizitatzaile bakoitzari** ikasturte horren martxoaren 31ra arte Euskal Autonomia Erkidego osoaren esparruan **onartu dizkion autoikaskuntza-matrikulen kopuru osoa aplikatuz** sortzen den ehunekoa.

A.3) Sortu berriak diren operadoreak: 2021/2022 ikasturtean HABEk diruz lagundutako jarduerarik izan ez duten operadore sortu berrien kasuan, onartutako beste lizitatzaile guztien artean **gaitasun gutxien duenaren %50a** aitortuko zaie.

B) Genero-berdintasunaren aldeko aitorpena edo ziurtagiria: 3 puntu. EMAKUNDEk emandako «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea»ren aitorpena, edo antzeko ziurtagiriak, ezagurri baliokidegarriak badituzte edukiaren aldetik, eta ziurtagiria ematen duen erakundearen aldetik ere.

11.2.2. ESKAINTZA EKONOMIKOAREN ALDEKO IRIZPIDEA

Eskaintza ekonomikoa: 42 puntu. Eskaintza ekonomikoa balioetsiko da jarraian adierazten diren parametroen arabera:

- Ikasturte osoko ikasle bakoitzeko prezioa: 14 puntu.

- Hiruhilabeteko ikastaroetako ikasle bakoitzeko prezioa: 14 puntu.

- Iraupen desberdineko ikastaroetako prezioa/orduko/ikasleko: 14 puntu.

5. klausulan adierazitako prezio unitario maximoak berdintzen dituzten eskaintzek ez dute punturik jasoko atal honetan.

Eskainitako prezio bakoitzari eman beharreko puntuak kalkulatzeko, honako formula hau aplikatuko da:

$$\text{Lortutako puntuazioa} = \frac{\text{OLA-E}}{\text{OLA-Eb}} \times 14$$

OLA = Lizitazioaren oinarrizko prezioa
E = baloratu beharreko eskaintza
Eb= eskaintza baxuena

11.3.- BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK: Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitakoak aplikatuko dira, lege horretan jasotako hurrenkeran.

12. AGIRI ETA INFORMAZIO GEHIGARRIAREN ESKURAGARRITASUNA

Hautaketa-prozedura hau arautzen duten Administrazio Klausula Berezien Agiria eta Oinarri Teknikoen Agiria eskuragarri daude kontratatzailearen profilean: www.contratacion.info edo www.contratacion.euskadi.eus.

Horien inguruko kontsultak egiteko, interesdunek honako hauetara jo dezakete:

- Kontsulta teknikoak: Dorleta Ugalde Usandizaga
  Telefono zk.: 943022631
  Helbide elektronikoa: d-ugalde@habe.eus
- Kontsulta juridiko-administratiboak: Itziar Azurza Sorrondegi.
  Telefono zk.: 943-022636
  Helbide elektronikoa: kontratuak@habe.eus

Kontratua gauzatzeko orduan aplikatzekoak diren fiskalitate-arloko eta ingurumenaren babesaren arloko betebeharrei buruzko argibideak eta Esparru Akordio honetatik ondorioztatzen diren kontratuetan enpleguaren babesaren arloan, lan-baldintzen arloan eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean diren xedapenei buruzko argibideak hemen eskuratu daitezke:

Lehiari buruzko informazioa: Lehiaren Euskal Agintaritza. (www.competencia.euskadi.eus) Zer da lehiaren defentsa- Lehiaren Euskal Agintaritza (euskadi.eus)

Fiskalitateari buruzko informazioa: Foru aldundiak.

Enpleguaren babesaren, lan-baldintzen eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.

Ingurumen-arloan indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa: IHOBE Sozietate Publikoa.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ebazpenei buruzko informazioa. Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE).

Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

13. ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO BETEKIZUN FORMALAK, TOKIA ETA EPEA

13.1 BALDINTZA FORMALAK

Lizitazioan parte hartu ahal izateko, lizitatzaileek, lizitazio iragarkian adierazten den epean, **BI GUTUN-AZAL edo artxibo (A eta B),** aurkeztu behar dituzte, honako identifikazio honekin:

☐ A gutun-azala edo artxiboa: Aurretiko betekizunak bete izanaren deklarazioa, baldintza-plegu honen 14. atalean adierazitako agiriekin.

☐ B gutun-azala edo artxiboa: Eskaintza ekonomikoa eta matrikula kopuruari buruzko deklarazioa, agiri honetako 11.2. atalean adierazten den balorazio-irizpidearen xede dena, 15. atalean adierazitako agiriekin.

Gutun-azalak edo artxiboak honako baldintza hauek betez aurkeztu behar dira:

☐ Argi agertu behar du:

- Aurkezten den lizitazioaren identifikazioa, espediente-zenbakia (**G22/212**) eta zein gutun-azal den (A, B) adierazita.
- Lizitatzailearen izen-abizenak, pertsona fisikoa bada, edo izendapen soziala, pertsona juridikoa bada.
- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, gainera, hori ordezkatuz esku hartzen duen ordezkariaren izen-abizenak adierazi behar dira.
- IFZ, helbidea, telefono-zenbakia eta harremanetarako helbide elektronikoa.
- Lizitatzailearen edo hori ordezkatzen duen pertsonaren sinadura.

☐ Gutun-azal edo artxibo bakoitzaren barrualdean, gutun-azal bakoitzerako zehazten den dokumentazioa sartu behar da soilik.

Deklarazio guztiak jatorrizko dokumentuan aurkeztu behar dira.

13.2. NON AURKEZTU

Esparru Akordio hau esleitzeko prozeduran parte hartzeko, Baldintza Plegu honen aurreko atalean eta 14. eta 15. ataletan adierazitako gutun-azalak edo artxiboak baliabide elektronikoen bitartez aurkeztuko dira, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN izeneko plataforman.

13.3 AURKEZTEKO EPEA

Parte hartzeko eskabideak eta dagozkien eskaintzak **aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 31n amaituko da**, **23:59etan,** lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Lizitazio-iragarkiarekin batera argitaratuko da eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den eguna eta ordua, kontratatzailearen profilean.

Epez kanpo aurkeztutako proposamenak ez dira inolaz ere onartuko.

14. "A" GUTUN-AZALEAN («AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA») SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

«A» GUTUN-AZALEAN jarraian ageri diren dokumentuak sartu behar dira, aurkezten diren dokumentuen zerrenda adierazten duen orri independente batekin:

1. Agiri honetako **II.1 eranskinean** ageri den EKAB formularioa, behar bezala beteta. Formulario horren "Hautaketa irizpideak" delako IV. zatiari dagokionez, lizitatzaileak α (alfa) markarekin aipatutako atala bete beharko du, IV. zati horren beste atal guztiak bete gabe utziz.
2. Enpresen aldi baterako elkartea: Zenbait lizitatzailek aldi baterako elkarte baten parte hartuz lehiatu nahi badute, horietako bakoitzak bere jarduteko gaitasuna eta kaudimena frogatu behar ditu aurreko klausuletan ezarritakoarekin bat etorriz. Beraz, taldekatuta lehiatzen diren lizitatzaileek aurkeztu behar dituzte A gutun-azaleko agiri guztiak, honako hauek kontuan hartuta: proposamen-idazki bat, bertan adierazita zeintzuk diren proposamena sinatu duten enpresak eta bakoitzaren egoera, bakoitzak nola parte hartzen duen, nor izendatu den, kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin, ordezkari edo ahaldun bakar gisa aritzeko (kopuru handiak kobratzeko eta ordaintzeko, ahalordeak mankomunatua ere izan daiteke); bai eta esleipena jasoz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa. Elkartearen barruko enpresa bakoitzeko ordezkariek sinatuko dute dokumentu hori (**II.4 eranskina**). Kontratua aldi baterako enpresa-elkarteari esleitzen bazaio bakarrik sinatuko da elkartea eratzeko eskritura publikoa.
3. Konfidentzialtasuna: Beharrezkotzat joz gero, (**II.3 eranskina**) jasota dagoen ereduarekin bat, lizitatzaileak aukera du gutun-azal honetan sartutako eskaintzako informazio eta datuen artean isilpean gorde beharrekoak zeintzuk diren adierazteko, sekretu teknikoekin edo merkataritzakoekin zerikusia dutela eta;eta eskaintzaren datu eta informazio horien eta sekretu tekniko edo merkataritzakoen arteko lotura hori azaldu egin behar du. Eskaintza ekonomikoak ez du inolaz ere izaera hori izango.
4. Atzerriko enpresak: komunitarioak ez diren eragile ekonomikoak badira, SPKLaren 68.1 artikuluak araututako txostena aurkeztuko dute. Halaber, kontratua Espainian gauzatu behar bada, Espainiako epaitegi eta auzitegien menpe jarriko direlaren aitorpena aurkeztuko dute, bai zuzenean bai zeharka gerta daitezkeen edozein gorabehera dela eta, eta legokiokeen atzerriko foru jurisdikzioari uko egingo dio. Halaber, operadore ekonomikoak Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak badira eta kontratua Espainian betearaziko bada, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala balegokio, operadore ekonomikoari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz.
5. Baliabideak adskribatzeko konpromisoa **II.2.1 eranskinean** ezarritako ereduari jarraikiz.
6. Kontratuaren objektu den jarduera egiten duten langileei dagokienez operadore ekonomikoak hartutako konpromisoei buruzko deklarazioa (**II.5 eranskina).**
7. Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluaren arabera enpresaa-talde berekoak diren hainbat operadore ekonomikoki aurkezten badute eskaintza, **II.6 eranskina** bete beharko da.

8. **II.7 eranskina** bete beharko da, eskaintza zein sortarako edo sortatarako aurkezten den adierazteko.

15 «ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK» "B" GUTUN-AZALAREN BARRUAN SARTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA.

Eskaintza ekonomikoa jaso behar du, **III.1 eranskinean** ageri den ereduarekin bat. Eskaintzen den prezioan sartuta daude aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta prestazioa emateak edo administrazio-klausula zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak betetzeak esleipendunari eragingo dion beste edozein gastu ere. Ohartarazten da uztailaren 3ko 15/2007 legearen 1. artikuluari jarraikiz, debekatuta daudela lehia ekidin asmoz edo mugatzeko helburuz edo ondorio hori eragin dezakeen akordio, erabaki edo aholku kolektiboak.

Halaber, genero berdintasunaren aldeko ziurtagiriak ere adieraziko dira.

16 «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANAREN DEKLARAZIOA» "A" GUTUN-AZALA IREKI ETA KALIFIKATZEA.

16.1.- Aurkezteko epea amaiturik, kontratazio-mahaiak bilera egingo du, eta egiaztatuko du lizitazio-prozesura aurkeztu direnek entregatu duten kaudimen-aitorpena behar bezala beteta eta sinatuta dagoela, eta enpresa ordezkatzeko izendatu den pertsona ahaldunak sinatu duela.

Ondorioztatzen bada enpresa ordezkatzen duen pertsonak behar bezala bete eta sinatu duela, prozeduran onartzea adostuko da. **Akats edo omisio zuzengarriak** hautematen badira aztertutako dokumentazioan, interesdunei **bide elektronikoz** jakinaraziko zaie eta hiru (3) egun balioduneko epea emango zaie berriro ere aurkeztu dezaten, hautemandako akats eta/edo omisioak zuzendutakoan.

Aurreko klausulan ezarri diren zuzenketak gorabehera, aurkeztutako dokumentuei buruzko **argibideak** eskatu ahal izango zaizkie enpresa lizitatzaileei, baita dokumentu osagarriak eskatu ere. Enpresak hiru (3) eguneko epea izango du eskatutakoa aurkezteko, eta ezin izango du dokumentaziorik aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den onarpen-deklarazioa egin ostean.

Emandako epea amaiturik, zuzentze-fase horretan emandako dokumentazioa aztertuko du kontratazio-mahaiak, eta enpresak onartuko edo baztertuko diren erabakiko du. Lizitatzaileren bat baztertzea erabakiz gero, horretarako arrazoiak adieraziko ditu erabakiarekin batera.

16.2.- Hautatutako eta baztertutako lizitatzaileen zerrenda kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta, hala dagokionez, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira. Era berean, lizitatzaileek kontsultatu egin ahalko dute, kontratazio-mahaiaren Idazkaritzara bidalitako eskaeraren bidez: kontratuak@habe.eus

17 ESKAINTZAK IREKITZEA

17.1. **2022ko ekainaren 7an, 12:00etan,** HABEren kontratazio-mahaiak, **saio publikoan**, jakitera emango ditu onartuak eta barztertuak izan diren lizitatzaileak, eta **B gutun-azalak** irekiko ditu**.**

Behin eskaintzen irakurketa amaitu ostean, lizitatzaileek Mahaiaren aurrean formulatu ahal izango dituzte beharrezkotzat jotzen dituzten oharrak, eta dagokien aktan jasota geratuko dira.

17.2. Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskaintzak ulertzeko beharrezko argibideak. Era berean, kalkulu matematikoetatik edo parametro objektiboak aplikatzetik eratorritako erroreak zuzentzeko eskatu ahal izango du. Inola ere ez da onartuko, argibideak aurkeztuz, lizitatzaileek gainerako lizitatzaileei kalte egiten dien aldaketarik sartzea.

17.3. Jarraian, kontratazio-mahaiak egiaztatuko du eskaintzetako batean **balio anormal edo desproportzionatuak al dauden**, agiri honetan ageri den parametroarekin bat. Hala izanez gero, eskaintza hori aurkeztu dutenei eskatuko zaie, 5 egun balioduneko gehieneko epean, prezioaren egokitasunaren justifikazioa aurkezteko kontratazio-mahaiari. Hala dagokionean, justifikazioa eta organo sustatzailearen txostena aurretiaz jasotakoan, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari onartzeko edo baztertzeko proposatuko dio.

17.4. Kontratazio-mahaiaren akordioz **baztertu egingo dira** honako eskaintza hauek:

- ☐ Administrazioak ebazpena emateko ezinbestekoa irizten dion zerbait jakitea eragozten duten kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirrimarrak dituzten eskaintzak.
- ☐ Aztertutako eta onartutako agiriekin bat ez datozen eskaintzak.
- ☐ Agiri honetako 5. klausulan ageri diren lizitazioko oinarrizko prezio unitarioak gainditzen dituztenak.
- ☐ Eskaintza ekonomikoaren eredua nabarmen aldatzen dutenak.
- ☐ Eskaintzaren zenbatekoan errore nabarmena ageri duten eskaintza ekonomikoak.
- ☐ Lizitatzaileak onartzen badu eskaintza bideraezina dela errore edo funsgabetasunen batengatik, eskaintza ez da onartuko.
- ☐ Lizitazio-iragarkian ezarritako epea bukatu ondoren aurkezten direnak.
- ☐ Kanpotik identifikatu ezin diren gutun-azaletan (A, B) aurkeztu direnak.

17.5. Eskaintzaren bat baztertzeko Mahaiaren erabakien aurkako kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahalko dute eskaintza hori aurkeztu dutenek, SPKLren 44. artikuluan ezarritako epe eta baldintzetan.

18 ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA PUNTUAZIO ONENAK IZAN DITUZTEN ENPRESEI ESKAERA EGITEA .

Kontratazio-mahaiak puntuazioaren arabera sailkatuko ditu eskaintzak, handienetik txikienera, eta sailkapen horretan oinarrituta, esleipen-proposamena kontratazio-organoari helaraziko dio. Puntuazio hori guztiaren ehunekotan ere adieraziko da, plegu honen 36. atalaren 1. azpiatalean ezarritakoaren ondorioetarako.

Kontratazio-organoak, egokitzat jotzen badu, esleipen-proposamena onartuko du.

19.- AKORDIO MARKORAKO AUKERATUTAKO ENPRESA LIZITATZAILEEK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

19.1. Behin kontratazio organoak esleipen-proposamena onartuta, eskaintza onenak aurkeztu dituzten lizitatzaileei eskatuko zaie hamar (10) egun balioduneko epean honako dokumentu hauek aurkez ditzaten (**Enpresa EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizial batean izena emanda dagoenean, ez du justifikazio-agiririk edo bestelako froga dokumentalik aurkeztu beharko aipatutako tokietan inskribatutako datuei buruz**, betiere, HABEren kontratazio-mahaiak horiek dohainik eskuratzeko aukera badu).

19.1.1.- **Jarduteko gaitasuna** egiaztatzeko:

a) Lizitatzaileak pertsona juridikoak badira bere jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute eratze-eskritura edo dokumentuaren bidez, estatutu edo eratze-aktaren bidez, zeinetan bere jarduerari buruzko araudia azalduko den, behar bezala inskribatuak, bere kasuan, dagokion Erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera, beti ere dokumentazio hori aldez aurretik HABEn aurkeztu ez badute.

b) Europar Batasuneko Estatu kide edo Europar Eremu Ekonomikoaren Akordioaren sinatzaile diren Estatuetako lizitatzaileek bere jarduteko gaitasuna egiaztatuko dute SPKLren 84.2 artikuluak xedatutakoaren arabera.

c) Gainontzeko lizitatzaile atzerritarrek bere jarduteko gaitasuna SPKLren 84.3 artikuluak xedatutakoaren arabera egiaztatuko dute.

19.1.2.- **Ahalduntzea**: eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo enpresa interesduna sozietatea edo pertsona juridikoa bada, sinatzaileak berariazko ahalorde askietsia aurkeztu behar du. Enpresa interesduna pertsona juridikoa bada, ahalorde hori dagokion Erregistro publikoan inskribatuta egon behar da, araudiak xedatutakoarekin bat eta pertsona juridiko motaren arabera hori derrigorrezkoa bada, beti ere dokumentazio hori HABEn lehenago aurkeztu ez badute.

19.1.3. **Kaudimena:** aukeratutako operadoreen ekonomia- eta finantza-kaudimena eta baldintza tekniko edo profesionalak ziurtatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dira; baita ere, Berdintasun Plana onartua eta bere inskripzioa bideratzeko dagokion Erregistroan aurkeztua dagoela zuritzen duen agiria aurkeztu beharko dute. Aldiz, ikastaroak emango dituztenen kualifikazio teknikoa eta profesionala 37 eta 40.1 klausulak adierazten duten moduan egiaztatuko da:

Ekonomia- eta finantza-kaudimena. Egiaztatzeko erak: Urteko kontuak, onartuta eta Merkataritza Erregistroan gordailututa, baldin eta hautatutako

lizitatzailea Erregistro horretan izena emanda badago. Gainerako kasuetan, zerga-aitorpena eta aitorpen arduratsua, urteetako ekitaldietan pertsona helduak euskalduntzearen esparruan izandako negozio-bolumen globala islatzen dutena. 2021ari dagokionez, urte horretako negozio bolumenari buruzko aitorpen arduratsua.

Baldintza teknikoak edo profesionalak. Egiaztatzeko erak: Adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu egin behar da, honako dokumentu hauen bidez:

- Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroko inskripzio-ziurtagiria, HABEk ofizioz emango duena.

19.1.4. Kontratuaren indarraldi osoan beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak eskura izatea: lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiliko baditu, **V.1 Eranskinean** agertzen den "Beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzeko konpromisoa" aurkeztu beharko du.

19.1.5. Kontratatzeko debekurik ez izatea: kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzen duten dokumentuak, SPKLren 85. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera (**V.2 Eranskina**).

19.1.6. Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatea: zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiriak, eta zerbitzu publikoarekin kontratuak egiteko Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

19.1.7. Bermea: Kontratu oinarrituak formalizatzerakoan erabiliko den berme-era (**V.5 Eranskina**). Dena den, esleipendunek berme-era hori aldatu ahal izango dute kontratu bakoitza sinatu baino lehen.

Aipatu ziurtagiriak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoen bidez igorri ahal izango dira.

Baldintza orokorren 19.1 klausulan adierazitako erregistroen inskripzio, zerrenda eta base datuek klausula horrek adierazitako ondorioak izango dituzte bertan jasotako datuen egiaztatzeari dagokionez, beti ere horietara sartzea dohainik baldin bada.

19.2.- Aipatu epean errekerimendu hori egoki bete ezean, bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da. Kasu horretan, hurrengo lizitatzailearen dokumentazio berbera eskatuko da, sailkatuak geratu diren ordena errespetatuta.

19.3.- Kontratazio-mahaiak enpresari eskatu ahal izango dio aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko, edo beste dokumentu batzuk aurkezteko.

19.4.- Kontratazio-mahaiak proposamen onena zehazten badu ere, proposamen horren lizitatzaileak ez du horregatik izango eskubide gehiago administrazioaren aurrean.

III.- ESPARRU-AKORDIOAREN ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

20 ESLEIPENA ETA JAKINARAZPENA

20.1.- Kontratazio-organoak arrazoietan oinarritutako ebazpen baten bidez erabakiko du Esparru Akordioa onenak diren proposamenei esleitzea, bi hilabeteko epe maximoan, eskaintzak irekitzen diren unetik zenbatzen hasita. Eskaintzaren batek balio anormalak edo desproportzionatuak izanez gero, epe hori 15 egun baliodunez luzatuko da. Kontratua ez bada ezarritako epearen barruan esleitzen, lizitatzaileek bertan behera utzi ahal izango dute eskaintza.

Esleipenaren arrazoiei SPKLren 151. artikuluan jasotzen den konfidentzialtasun salbuespena aplikatuko zaie.

Kontratazio organoak ezin izango du prozedura hutsik deklaratu, agirian jasotako irizpideen arabera onargarria den eskaintzarik badago.

20.2.-Esleipen-ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da: www.contratacion.euskadi.eus

Jakinarazpena edozein bide baliatuta egin ahalko da, baldin eta jasota gelditzen bada hartzaileak jakinarazpena jaso duela; gainera, jakinarazpenean beharrezko informazioa eman beharko da baztertutako lizitatzaileak edo hautagaiak aukera izan dezan, SPKLren 44. artikuluan jasotzen denaren arabera, behar adina funtsatutako errekurtsoa aurkezteko adjudikazio-erabakiaren aurka. Zehazki, honako informazio hau eman beharko du:

- esleipen-prozeduratik kanporatutako lizitatzaileen dagokienez, horien eskaintza ez onartzearen arrazoiak adierazi beharko dira, laburtuta.
- esleipendunen izena, ezaugarriak eta esleipendunen eskaintzen abantailak
- kontratua formalizatzeko epea

21 UKO EGITEA EDO ATZERA EGITEA

Kontratazio-organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla-eta, eta lizitatzaileei behar bezala jakinarazita, uko egin diezaioke Esparru Akordioa izenpetzeari esleipena gertatu baino lehen. Halaber, esleipena baino lehen, atzera egin ahal izango du, kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen-prozedura arautzen duten arauetan zuzendu ezin ez den arau-hauste bat hautematen duenean, SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

22 ESPARRU-AKORDIOA FORMALIZATZEA

Esparru Akordioa formalizatzeko, lizitatzaileei esleipenari buruzko jakinarazpena igorri zitzaienetik **hamabost egun baliodun** igaro beharko dira; ezingo da lehenago formalizatu.

Epe hori igarotakoan ez bada errekurtso berezirik jarri kontratazio-arloan, kontratazio-organoak hautatutako operadoreei **eskabidea** egingo die, Esparru Akordioa formaliza dezaten **bost eguneko gehieneko epean**, eskabidea jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Enpresen aldi baterako elkarte gisa lehiatu diren hautatutako enpresek, Esparru Akordioa formalizatu aurretik, aldi baterako elkartea eratzearen eskritura publikoa aurkeztu beharko dute. Horretan, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu behar da, Esparru Akordiotik ondorioztatzen diren betebeharrak betetzeko edo eskubideetan jarduteko behar adinako boterearekin, edota ahalorde mankomunatuak, arauz ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

Akordio markoaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

IV.- ESPARRU-AKORDIOAREN ERAGIN, BETETZE ETA IRAUNGITZEARI BURUZKO XEDAPENAK

23 ESLEIPENDUNEK ARDURADUNAK IZENDATZEA

Esleipendunek identifikatu egin behar dute, enpresa ordezkatuz, Esparru Akordio honetatik ondorioztatu daitezkeen gertakariak ebazteko eta harremanetarako elkarrizketakide gisa jarduten duen pertsona; orobat, identifikatu egin behar dituzte enpresaren izenean izaera errepikakorreko izapide-komunikazio guztiak egiten dituzten arduradun guztiak (hala nola enpresaren datuak helaraztea, entrega, albaran eta fakturen jakinarazpenak eta antzekoak); horien izen-abizenak, NAN zenbakia, esleitutako telefonoak, faxa eta helbide elektronikoa adierazi beharko dira, baita enpresaren antolamenduan duten kargua ere.

24 ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

SPKLren 190. artikuluak ezartzen duenarekin bat, kontratazio-organoak Esparru Akordioan sortzen diren zalantzak interpretatu eta ebazteko, interes publikoko arrazoiak aldatzeko, ebazpenak erabakitzeko eta efektuak zehazteko prerrogatibak ditu.

Prerrogatiba horien oinarrian organoak hartzen dituen akordioek amaiera ematen diote administrazio-bideari eta berehala dira exekutiboak.

25 ESPARRU-AKORDIOAREN XEDEA ALDATZEA

Esparru Akordioa aldatu egin ahal izango da, SPKLren 205. eta 189. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

26 ESPARRU-AKORDIOA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Esparru Akordiotik eratorritako harreman juridikoa amaitu egingo da SPKLren 211. eta 313. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batekin ukitutako kontratistarekin edo kontratistekin, SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan adierazitako aplikazio eta ondorioekin.

Esparru Akordioa ebazteko kausa espezifikotzat hartuko dira ere, SPKLren 211.h) atalean aurreikusitakoaren arabera, honako hauek:

- Agiri honetan oinarritzen diren kontratuen harira ezartzen diren datu pertsonalen babesari buruzko betebeharrak ez betetzea.
- Oinarritutako kontratuek bete behar dituzten egikaritze-baldintza bereziak ez betetzea.
- Aurkeztutako dokumentu eta deklarazioetako edukiak nabarmen egia ez izatea.

Kasu guztietan APKLAOren 109. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

27 KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

Esleipen-ebazpenaren aurka, edota agiri honen eta Oinarri Teknikoen Agiriaren aurka, edo orobat prozedurarekin aurrera egitea ezinezkoa dela zehazten duten edo babesgabetasuna zein eskubide edo interes legitimoen kalte konponezina eragiten duten izapide-ekintzen aurka (betiere, esleipenaren gainean zuzenean edo zeharka erabakitzen dutenean), kontratazio-arloko errekurtso berezia jar daiteke, SPKLren 44. artikuluan aurreikusten den modu eta epeetan.

Prozedurak aurrera jarraitzea eragozten duten izapide-egintzatzat jotzen dira kontratazio-mahaiaren egintzak, lizitatzaileak baztertzea erabakitzen dutenean.

Errekurtso berezi hau SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari lotuta izapidetu behar da.

Errekurtsoaren ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezingo da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko lerrokadan aipatutako egintzez bestelakoei eragiten dieten izapidetze-akatsak espedientearen instrukzioaren ardura duen organoari edo kontratazio-organoari jakinarazi ahal dizkiote interesdunek, zuzenduak izan daitezen. Hori eginda ere, interesdunek aukera izango dute eragiten dieten irregularitasunak alegatzeko esleipenari dagokion egintza errekurritzeko unean.

28 ESKUMENEKO JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak du eskumena Esparru Akordio honen prestaketa eta esleipenari buruzko auzi-kontuak eta alderdien artean interpretazioari, aldatzeari, betetzeari, efektuei eta iraungitzeari buruz sortutako zalantzak ebazteko, SPKLren 27. artikuluan xedatzen den moduan.

V.- ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUEI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK, ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.

29 OINARRITUTAKO KONTRATUEN ARAUBIDE JURIDIKOA

Esparru Akordioan oinarritutako kontratuak agiri honetan adierazten diren arau eta dokumentuen bidez zehazten dira, orobat kontratu bakoitzaren formalizazio-dokumentuaren bidez.

30 KONTRATU MOTA ETA XEDEA

Esparru Akordioan oinarritutako kontratuak zerbitzuetarako administrazio-kontratuak dira, SPKLren IV. eranskinean daude jasota: Hezkuntza arloko zerbitzuak.

Esparru Akordioan oinarritutako zerbitzu-kontratuen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Administrazio Publikoetako eta beren sektore publikoa osatzen duten erakundeetako enplegatu publikoei Pertsona Helduen Euskara Irakaskuntzarako Oinarrizko Curriculumaren (HEOC - 2015) araberako euskara-ikastaroak irakastea autoikaskuntza sistemaren bidez, dagokien ebaluazioa barne, Baldintza Teknikoen Pleguan zehaztutakoari jarraikiz, betiere ondoren zehaztutako denbora-mugen barruan: **2022ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era bitartean hasi, eta 2023ko abenduaren 23a baino lehen amaituko diren ikastaroak badira, edota 2022ko irailaren 1tik eta urriaren 1era bitartean hasten badira, 2022ko abenduaren 31z geroztik bukatzen direnean, betiere 2023ko abenduaren 23ko muga errespetatuz**.

Ikastaro motak Esparru Akordio honetako Baldintza Teknikoen Agirian daude deskribatuta eta esleituko den ikastaro kopurua 2022/2023 ikasturterako eta ikasturtean zehar sortzen den eskaeraren arabera zehaztuko da.

31 OINARRITUTAKO KONTRATUAK ONARTZEAREN ETA FORMALIZATZEAREN BETEBEHARRAK

Hautatutako enpresek esleitzen zaizkien kontratu oinarrituak beren gain hartu eta formalizatu egin behar dituzte, administrazio-baldintza berezien Agiri honetan aurreikusten diren irizpideei jarraiki; oinarritutako kontratu baten esleipenari uko egiteak iraungi egingo du sinatutako Esparru Akordioa dagokion enpresarekin, kontratazio-organoak txosten bat egingo du enpresa horrekiko Esparru Akordioa amaitutzat emateko, eta hori jakinarazi egingo zaio.

32 PREZIOA ETA ORDAINKETAK

32.1.- Prezioa

Kontratuen prezioa zehazteko, 5. klausulan zehaztutako prezio unitarioaren sistema erabiliko da.

Oinarritutako kontratuaren guztizko prezioa ezagutzeko, esleipenaren prezio unitarioaren eta esleitutako unitate-kopuruaren arteko biderkadura izango da.

Kontratuaren prezioan sartuta daude aplikatzekoak diren zerga, tasa eta kanon guztiak, bai eta prestazioa emateak edo administrazio-klausula zehatzen agiri honetan jasotako obligazioak betetzeak esleipendunari eragingo dion beste edozein gastu ere.

32.2.- Prezioen berrikuspena

Behin Esparru Akordioa esleitu ostean, oinarritutako kontratuetarako ezarritako prezioak ezin izango dira berrikusi.

32.3.- Ordainketak

Esparru Akordio honen babesean hasten diren ikastaroak ondoren zehazten diren ordainketa partzialen bidez ordainduko dira.

Honako ordainketa partzial hauek egingo dira, HABEren Ikuskatzailetzak kontratistak egiazki gauzatu dituen lanei buruzko txostena egin ostean, betiere aldez aurretik kontratistak dagozkien fakturak aurkeztu baditu. Ez da harrera partzialik egingo, entrega partzialak baizik. Entrega guztien harrera bakarra egingo da, azken entrega gauzatu ondoren, kontrataturiko prestazioak bukatzen direnean.

Gertaera	Zenbatekoa	Epea
Ikasturte hasieran, irailaren 1etik aurrera eta edozein kasutan 2022eko abenduaren 31 baino lehen hasi eta 2023ko ekainean amaitzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren guztirako prezioaren % 33	2022ko abenduaren 31 baino lehen
Ikasturte erdian, irailaren 1etik eta edozein kasutan 2022ko abenduaren 31 baino lehen hasi eta 2023ko ekainean amaitzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren guztirako prezioaren % 33	2023ko apirilaren 15a baino lehen
Ikasturte erdian, 2023ko urtarrilaren 1aren ondoren hasi eta 2023ko ekainean amaitzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren guztirako prezioaren % 50	2023ko apirilaren 15a baino lehen
Ikastaroa amaitzean, matrikularen zenbateko osoaren likidazioa, 2022ko irailaren 1etik aurrera hasi eta 2023ko ekainean amaitzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren guztirako prezioaren % 34	Ikastaroa amaitu eta hilabeteko epean
Ikastaroa amaitzean, matrikularen zenbateko osoaren likidazioa, 2023ko urtarrilaren 1aren ondoren hasi eta 2023ko ekainaren 30a baino lehen amaitzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren guztirako prezioaren % 50	Ikastaroa amaitu eta hilabeteko epean
2023ko martxoaren 1etik aurrera hasi eta 2023ko abenduaren 20a baino lehen amaitzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren guztirako prezioaren % 50	2023ko ekainaren 30a baino lehen
	Ikastaroaren guztirako prezioaren %50	Ikastaroa amaitu eta hilabeteko epean
2023ko ekainaren 1a eta abuztuaren 31 bitartean hasten diren ikastaroetarako	Ikastaroaren guztirako prezioaren 100%	Ikastaroa amaitu eta hilabeteko epean

33 GAUZATZEKO EPEA

Kontratatutako zerbitzua gauzatzeko epeak esleitutako ikastaro motaren eta horren iraupenaren araberakoak izango dira, baina ezingo dute inolaz ere Esparru Akordioaren indarraldia gainditu, eta Esparru Akordio honetako Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoari jarraikiz burutuko dira.

Edozein kasutan, gauzatzeko epea izenpetutako kontratuan adierazten den datan hasiko da.

34 BERMEAK

Onenak diren eskaintzak egiten dituzten lizitatzaileek **esleipenaren zenbatekoaren 100eko 5eko behin betiko bermea jarri beharko dute**, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan dela, bost egun balioduneko epean kontratazio-organoaren errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bermea honako moduren batean eratu ahalko dira:

- Eskudirutan edo zor publikoaren baloreetan. Eskudirua Euskadiko Diruzaintza Nagusian edo dagokion erakundearen pareko establezimenduan entregatuko da. Dagokien liburuetan idatzitako baloreen ibilgetze-ziurtagiriak, berriz, kontratazio-organoaren aurrean aurkeztuko dira.
- Abalaren bidez, jarduteko baimena duten banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-erakunde eta elkarren bermerako sozietateek lege hau garatzeko arauek ezarritako eran eta baldintzen arabera eman behar dute abal hori. Kontratazio-organoaren aurrean aurkeztu behar da abal hori.
- Kauzio-asegururako kontratu baten bidez. Kontratu hori egin behar da arlo horretan lan egiteko baimena duen erakunde aseguratzaile batekin. Aseguruari dagokion ziurtagiria kontratazio-organoaren aurrean aurkeztu beharko da.
- Prezioan atxikipena eginez.

Bermeak Eusko Jaurlaritzaren (IFZ: S4833001C) alde eratu behar dira.

Berme hori berme orokorra jarrita dagoela ziurtatuz ordezka daiteke, Euskadiko Diruzaintza Nagusiak jaulkitako ziurtagiriaren bidez, bermearen nahikotasuna eta dagokion diru-kopuruaren ibilgetzea ere ziurtatuz.

35 KONTRATAZIO-ORGANOA ETA KONTRATUAREN ARDURADUNA

Esparru Akordioan oinarritutako kontratuetarako kontratazio-organotzat jardungo du HABEko Zuzendaritza Nagusiak.

Kontratazio-organoak kontratuaren arduraduna izango den pertsona bat izendatu ahal izango du eta horri egokituko zaie kontratatutako zerbitzua zuzentzea eta ikuskatzea. Idatziz jakinaraziko zaio enpresa kontratistari kontratazio-organoak egindako izendapena. Kontratua gauzatzen ari dela izendapena aldatzen bada, aldaketa hori ere idatziz jakinaraziko zaio kontratistari.

36. OINARRITUTAKO KONTRATUAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURA

36.1 ESLEIPEN IRIZPIDEAK ETA PROZEDURA

Jarduera-esparru bakoitzerako hautatutako lizitatzaile bakoitzari ondoren zehaztutako operazioa aplikatuz ateratzen den ikastaro-kopurua esleituko zaio momentu bakoitzean, Esparru Akordio honen indarraldia irauten duen bitartean: plegu honen 11. eta 18. ataletan ezarritakoari jarraikiz, lizitatzaile guztiak klasifikatzeko bakoitzari aitortu zaion puntuazioaren ehunekoa ikastaro-kopuru osoaren gainean aplikatuz (momentu bakoitzean esleitu beharrekoak eta aldez aurretik esleituta daudenak batuz ematen duen kopuru osoaren gainean aplikatuz), betiere lizitatzaileak azken hiru ikasturteetatik (2019-2020, 2020-2021, 2021-2022) 11.1 atalean zehaztutako ezaugarriak betetzen dituzten matrikula gehien izan duen ikasturtean dirulaguntzetarako aitortu zaion matrikula-kopurua gehi ehuneko 10aren mugarekin.

Sailkapen horrek zehaztuko du esleipenen ordena korrelatiboa; hala, ez zaio ikastarorik esleituko bigarren postuan sailkatuta dagoen operadoreari, harik eta lehen postuan dagoen operadoreari esleitu beharreko matrikula-proportzio osoa bete arte, eta horrela gainerakoak ere.

Ondorio horietarako, zatiezina kontsideratuko da erakunde bakoitzak momentu bakoitzean egindako zerbitzu-eskaera bakoitza. Ondorioz, ikastaroak esleitzeko orduan, operadore bakoitzari egotzitako ikasle kopuruak albait gertuen geratu behar du 36.1. atal honetako lehen paragrafoan adierazten den ehunekoa aplikatzetik ondorioztatuko litzatekeen ikasle kopurutik;

eta, edozein kasutan, saihestu egin behar da beste operadore batek baino puntuazio handiagoa duen operadore bati esleitutako gehiegizko matrikulak (ikastaroak zatiezinak izatearen ondorioz) puntuazio gutxiago duen operadoreari egokitu eta esleitu ez zaizkion matrikulen kopurua baino handiagoa izatea, edota alderantzizko egoera, betiere, hori saihestu egin badaiteke lurralde-esparru bakoitzeko ikastaro-banaketa aldatuta.

Ondorioz, ikastaroak esleitzeko, ez da ikastaroen aurrez zehaztutako ordenik jarraituko; alegia, kontuan hartuko da non irakatsiko den eta zein den esleitu beharreko ikasle kopurua. Hartara, kontratazio-organoak albait hobekien moldatu ahal izango ditu esleipenak euskaltegi bakoitzaren esleipen-ehuneko aplikagarri maximora.

Kurtsoen lehen esleipena egin ostean, hasierako esleipenetarako zehaztu den ordena korrelatiboa eta esleipen portzentajeekin jarraituko da, beti ere Esparru Akordio honen babesean lehenago egindako esleipenak eta atal honetan adierazitako esleipen baldintzak kontuan hartuz.

36.2.- ESLEIPEN ETA FORMALIZAZIORAKO BERMEAK

Une oro eskaintza onena hautatu ostean, Administrazio kontratatzaileak Esparru Akordioaren sinatzaileei posta elektronikoz edota bide elektronikoz jakinaraziko die esleipen-proposamena; era berean, hautatutako operadorari errekerimendua egingo zaio, 3 egun balioduneko epean jarraian adierazten den dokumentazioa aurkez dezan:

- Behin betiko bermea eratu izana ziurtatzen duen dokumentazioa.

Eskaera ez bada adierazitako epean behar bezala betetzen, ulertuko da lizitatzaileak uko egin diola dagozkion kontratu oinarrituen esleipenari, Agiri honetan jasotzen diren balorazio- eta esleipen-irizpideekin bat; hori kontratuaren ez-betetzetzat hartuko da Esparru Akordio honekiko, eta Esparru Akordio berean oinarritzen diren beste kontratu batzuen esleipendun izateko aukera desagerraraztea ekarriko du berarekin. Kasu horietan, kontratazio-organoak eskaera berria egingo dio ondoren dagokion operadoreari, sailkapeneko ordenari jarraituz.

Edozelan ere, Esparru Akordioa esleitzeko fasean prezioari egindako atxikipenaren bidezko berme-mota aukeratu duten partaideen kasuan, berme-mota hori hautatu dutela ulertuko da atal honetan ezarritako epean besterik adierazten ez badute.

Behin betiko bermea eratutakoan eta atal honetan adierazitako agiriak aurkeztutakoan, kontratazio-organoak erabakiko du esleipena egitea eskaintza onena egin duen operadorari.

Esleipen-ebazpena operadore parte-hartzaileei jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

37 BALIABIDE PERTSONALEN ESKURAGARRITASUNA ETA OINARRITUTAKO KONTRATUAK FORMALIZATZEA

Esleipena jaso eta kontratu bakoitza formalizatu aurretik, ondoren zehazten diren agiriak aurkeztuko ditu esleipendunak:

- kontratua egikaritzeko jarriko dituen giza-baliabideei buruzko konpromisoa, II.2.2 eranskinean atxikitako ereduari jarraikiz.
- Kontratua gauzatzeari atxikitako giza baliabideen kualifikazio tekniko eta profesionalerako baldintzak zuritzen dituzten dokumentuak, baldintza-agiri honen 40.1 klausulan ezarrita daudenak hain zuzen, HABEn aurkeztuta ez badaude.
- kontratua egikaritzeko eskatzen diren giza baliabideak egiazki izatearen

egiaztagiria, Altan dauden Langileen Txostena edo dagokion lan-kontratuaren bidez, edo Gizarte Segurantzaren kotizazio-dokumentuaren bidez.

- Lan kontratuen baldintzei buruzko datuak (I.2 eranskina).

- Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako eta Barne Ministerioak ikastaroak gauzatzeko, Segurtasun sailaren edo Barne Ministeritzaren baimena beharko dute, hurrenez hurren, euskaltegiek proposatutako irakasleek. Baimena ezeztatzen den kasuetan, euskaltegiek beste irakasle bat proposatu beharko dute.

Kontratua administrazio-agirian formalizatuko da, esleipena jakinarazi osteko bost (5) egun balioduneko epean, eta agiri hori edozein erregistro publikotan sartzeko titulu nahikoa izango da. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak sortutako gastuak.

Kontratzio-organoak SPKLren 154. artikuluan ezarritakoaren arabera argitaratuko ditu sinatutako kontratuak.

VI.- OINARRITUTAKO KONTRATUEN EFEKTUEI, BETETZEARI ETA IRAUNGITZEARI BURUZKO XEDAPENAK

38 EPEAK BETETZEA ETA KONTRATUA GAUZATZEN BERANDUTZEA

Kontratistak kontratuaren egikaritza-epe partzialak eta guztizko egikaritza-epea bete behar ditu nahitaez. Kontratistak lana osorik gauzatzeko ezarritako epea edo haren zati bat gauzatzeko ezarritako epea betetzen ez badu, hau da, epe horietako batean berandutzen bada, eta errua berari egotzi ahal bazaio, administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua suntsiarazi edo zigor ekonomikoa ezarri. Horrez gainera, kontratistak berandutzeak sortutako kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

Lana egikaritzeko epeak betetzeko, SPKLren 193. eta 194. artikuluetan eta APKLAOren 98. eta 99. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

Eperen batean atzerapenik gertatzen bada kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, administrazioak luzapena eman dezake, hain zuzen ere berandutze-aldiaren iraupen berekoa; kontratistak, nolanahi ere, luzapen laburragoa eska dezake.

39 KONTRATUA GAUZATZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTE KLAUSULA BATZUK

39.1.- Arriskua eta zoria

Kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua exekutatzeko arriskua eta mentura.

39.2.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea

Prestazioa emateko orduan, zehatz-mehatz bete beharko dira Baldintza Teknikoen Agiria, agiri honetan zehaztutakoa, kontratua bera eta baita, horiek egikaritzeko edo interpretatzeko, administrazioaren ordezkariek kontratistari idatziz ematen dizkioten jarraibideak ere.

39.3.- Aseguruak eta lanen, kalteen eta galeren ardura

Kontratista izango da egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea. Halaber, kontratua gauzatzean hutsik edo okerrik egiten badu, metodo desegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki gauzatzen baditu eta ondorioz Administrazioari edo beste hirugarren bati kalte egiten badio, bera izango da erantzulea (SPKLren 311. artikulua).

Kontratistaren betebeharra da kontratua gauzatzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztien kalte-ordaina ematea.
Kalte-galerak Administrazioaren agindu zuzen eta berehalako baten ondorioz sortzen badira, berak edukiko du haiekiko erantzukizuna, legeek ezarritako mugen barruan (SPKL 196. artikulua).

Kontratistak nahitaezko aseguruak eduki behar ditu.

39.4.- Baliabide material eta pertsonalak

Kontratistak, prestazioa emateko, bere enpresa-antolamendua eta, zehazki, agiri honetako II.2 eranskinean aipatzen diren baliabideak aurkeztu eta mantentzeko betebeharra du. Langile horiek kontratistaren mende egongo dira soilik.

Kontratistak ezin izango ditu ordezkatu oinarritutako kontratua egikaritzeko hitzemandako langileak Administrazioari Baldintza Plegu honen 35 atalean ezarritako baldintzetan egindako jakinarazpenik egin gabe.

Osagai bat ezegokia dela uste badu, baztertu egin dezake administrazioak; hala ere, ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkez dezake kontratistak, eta hamar egun izango ditu horretarako, Administrazioak erabaki hura jakinarazteko idazkia igortzen dionetik kontatzen hasita.

39.5.- Kontratistaren betebeharrak lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan

Kontratistak lanaren arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu, honako hauek bereziki:

☐ Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak bertan ezarritako xedapenak bete behar ditu.

☐ Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

☐ Halaber, indarrean dauden araudietan lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, honako betebehar hauek bete dituela frogatu behar du, baldin eta Administrazio kontratatzaileak hala eskatzen badio kontratuaren egikaritzak irauten duen aldian:

a) Indarrean dagoen legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezartzea.

b) Laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako laneko arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek eskatzen diren neurriak betetzen diren edo ez ebaluatzen eta egiaztatzen badu. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete dela.

c) Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatzea eta prebentzio-jarduera planifikatzea.

d) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeko V. kapituluan ezarritako kontsulta eta parte-hartzea nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat edukitzea edo, hala balegokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.

e) Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartzea.

f) Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen edota jardueren zerrenda edukitzea.

g) Kontratua gauzatzen aritzen diren langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzerakoan arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko

informazioa jasotzea, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza ere (31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak, 32/2006 Legea eta 1109/2007 Errege Dekretua), Planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruzko beharrezko prestakuntza eman izana.

h) Beharrezkoak diren banakako babes-ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria edukitzea, beharrezkoak balira.

i) Jangela- eta atseden-zerbitzu egokiak, higiene-zerbitzuak eta jantziak ematea, langileen kopurua eta lan-eremuen kokapena kontuan hartuta.

j) Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atseden-egunak errespetatuz eta ordu osagarriak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, esleipendunak indarreko arauek xedatutakoa bete behar du; berak edukiko du horren erantzukizuna, inolaz ere ez Administrazioak.

40 KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

40.1.-KUALIFIKAZIO TEKNIKOA ETA PROFESIONALA, BAIMENAK ETA EBALUAZIOA

40.1.1.- Hautatutako lizitatzaileek akordio-esparru honen xede diren ikastaroak irakasteko izendatzen dituzten pertsona fisikoek euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan irakasle gisa jarduteko betekizunak bete behar dituzte (uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 14. artikulua); eta C2 mailako ikastaroen kasuan, irakasleek C2 maila egiaztatuta edukitzeaz gain, eskarmentua beharko dute C2 mailako ikastaroak irakasten. C2 mailako ikastaroak emango dituzten irakasleek, gutxienez, 10 hilabeteko irakas-eskarmentua izan behar dute azken 2 urteetan HABEren Pertsona Helduei Euskara Irakasteko Oinarrizko Curriculuma aplikatzen (HEOC).

Kontratu oinarritu bakoitza esleitu ondoren, kontratuaren egikaritzapenari adskribaturiko pertsonalaren zerrenda helaraziko dio lizitatzaileak administrazio kontratatzaileari kontratua formalizatu aurretik, kualifikazio tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak betetzen dituztela zurituz, aurretik ez badaude zurituta HABEren aurrean, hori guztia 37. atalean jasotakoari jarraikiz.

40.1.2.-Segurtasun Saileko, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako eta Barne Ministerioko enplegatu publikoentzako ikastaroak eman behar dituzten irakasleek kasuan kasuko eskumena duen organoaren baimena izan beharko dute ikastaro horiek eman ahal izateko.

40.1.3.-Lizitatzaileek gauzatu beharko dute ikasleen ebaluazioa Kultura eta Hizkuntza Politikaren sailburuaren 2020ko irailaren 9ko Aginduan, HABEren zuzendari nagusiak urte bakoitzeko egiaztatze-deialdien oinarrietan eta Ikasturte bakoitzerako zuzendari berak emandako Jarrabidetan ezarritakoa betez.

40.2.- HIZKUNTZA-BALDINTZAK

40.2.1.- Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratuaren betearazpenari begira, honela ulertuko da "normalean euskara erabiliko da" esaldia:

a) Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua betearazteko zereginak direla-eta botere adjudikatzailearekin harremanetan jartzen direnean. Botere adjudikatzaileak euskara erabiltzen badu kontratuaren betearazpenari adskribatutako langileekin eta ez badago inor hizkuntza hori

ondo ezagutzen duenik, kontratistak berehala jarri beharko ditu botere adjudikatzailearekin hizkuntza horretan jardun ahal izateko behar diren baliabideak edo behar den euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

40.2.2.-

Kontratuaren xedea gauzatzean herritarrei zerbitzuak eman behar bazaizkie edo hirugarrenekin edo herritarrekin, oro har, harremanak izan behar badira, enpresa kontratistaren eta erabiltzaileen edo kontratua gauzatzean haiekin harremanetan egon behar duten pertsonen arteko komunikazioan, ahoz zein idatziz, erabiltzaileak edo hirugarrenak kasu bakoitzean aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da. Berariaz aukerarik egiten ez denean, kontratua gauzatzeaz arduratzen den kontratistak pertsona fisiko eta juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, fakturak eta trafikoko beste agiri batzuk barne, hargatik eragotzi gabe herritarrak edozein unetan hizkuntza aukeratzeko eskubidea baliatu ahal izatea eta hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea eskatu ahal izatea.

Nolanahi ere, kontratistak behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jarri beharko ditu zerbitzuaren hartzaileekiko arreta, informazioa eta komunikazioa uneoro euskaraz egin ahal izateko.

Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko klausulak aplikatuta, esleipendun berriak subrogatu egin behar badu iraungitako kontratuari atxikitako langileekiko lan-harremanetan, eta kontratista horrek ez badu hizkuntza-gaitasunik kontratu-klausulen pleguetan arlo horretan ezarritako baldintzak betetzeko, kontratista berriak bete egin beharko ditu Kontratuari eska dakiokeen euskara ezagutza eta erabilera betetzen duten pertsonekin egin beharreko langile subrogatuen ordezkapenak.

40.2.3.- Azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko beste lan batzuk egitea xede duten kontratuetan, bi hizkuntza ofizialetan entregatu beharko dira, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

40.3.- GIZARTERATZEAREN ETA LANERATZEAREN INGURUKO BALDINTZAK

Kontratistak konpromiso hau hartu behar du: kontratatuan ezarritako prestazioa egikaritzeko kontratatzen dituen pertsonen % 20, gutxienez, enplegua lortzeko zailtasun berezia duten langabeak izango dira. Laneratze-ehunekoa lanak egiteko behar den langile-kopuru osoa kontuan hartuta neurtuko da

Honako pertsona hauek hartuko dira laneratzeko zailtasun bereziak dituztenen taldekotzat:

a) Laneratzeko hitzarmena sinatuta izanik oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonak (dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuak emandako ziurtagiria behar da, programa horren onuraduna dela frogatzen duena, alegia).

b) Inoiz lanean aritu ez diren 30 urtetik gorako emakumeak, eta bost urtez lanik egin gabe egon ondoren kontratatzen direnak (lan-bizitzaren txostena aurkeztu behar da frogatzeko).

c) Pertsona ezinduak, hain zuzen ere % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenak (erakunde ofizial eskudunak emandako desgaitasun-ziurtagiria aurkeztu behar da frogatzeko).

d) Etxeko indarkeriaren biktimak. Halakotzat joko dira indarkeria fisikoa edo psikikoa jasan dutenak bere ezkontidearen aldetik, edo afektibitate-harreman berberaz modu egonkorrean berari lotuta egon den pertsonaren aldetik, edo beren arbasoen, ondorengoen edo anai-arreben aldetik, baldin eta gertaera horiek kondena-epaiaren bidez edo biktimaren aldeko babes-aginduaren bidez egiaztatu badira edo, salbuespen gisa, babes-agindua izapidetu bitartean salatzailea aipaturiko indarkeriaren biktima izateko zantzuak badaudela adieraziz Fiskaltzak eginiko txostenaren bidez.

e) Gaixotasun mentala duten pertsonak (medikuaren txostena aurkeztu behar da frogatzeko).

f) Guraso bakarreko familia direnak, baldin eta gutxienez hiru hilabetean egon badira

inskribatuta langabe gisa. Honen ondorioetarako, halakotzat hartuko dira ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat (edo gehiago) bere kargura duten pertsonak (hori frogatzeko, ondokoak aurkeztu behar dira: elkarbizitza-ziurtagiria; Familia Liburuaren kopia; ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengo bat -edo gehiago- bere kargura duela adierazten duen zinpeko aitorpena; autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezian inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria).

g) Gutxienez 6 hilabetean jarraian langabezian inskribatuta egon diren Europar Batasunetik kanpoko etorkinak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezian inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).

h) Denbora luzean langabezian egon diren pertsonak, dagokion zerbitzu publikoan gutxienez 12 hilabetean lan-eskatzaile gisa inskribatuta egon direnak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezian inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).

i) Gutxienez 3 hilabetean jarraian langabezian inskribatuta egon diren 45 urtetik gorako pertsonak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezian inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).

j) Langabezian 5 - 12 hilabete jarraian egon diren pertsona gazteak, 16 - 30 urte bitartekoak (hori frogatzeko, autonomia-erkidegoko edo Estatuko dagokion lan-zerbitzu publikoak langabezian inskribatuta egondako aldiez egindako ziurtagiria aurkeztu behar da).

k) Adingabeak babesteko erakundeetatik datozen pertsonak, baldin eta laneratze-prozesua erakundetik irten eta hamabi hilabete pasatu baino lehen hasten bada (dagokion erakunde-ziurtagiria aurkeztu behar da).

l) Toxikomano ohiak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak). Halakotzat hartuko dira talde terapeutiko baten iritziz desintoxikatzeko eta menpekotasuna gainditzeko faseak gainditu eta 6 hilabetetik gorako jarraiko tratamenduan egon direnak (osasun-zentroaren ziurtagiria aurkeztu behar da).

m) Espetxean dauden pertsonak, hain zuzen ere lan-kontraturik eduki ez eta espetxe-araubidearen arabera lanean jardun dezaketenak, eta langabezian inskribatuta dauden preso ohiak, baldin eta kontratazioa espetxetik irten direnetik 12 hilabete pasatu baino lehen egiten bada dagokion erakunde-ziurtagiria aurkeztu behar da).

n) Eskatzen duten pertsonak, baldin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz laneratzeko esku-hartze edo jarduketa espezifikoren bat behar badute (oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ziurtagiria aurkeztu behar da).

o) Ekintza terrorista bat edo herritarren bakea eta segurtasuna larriki eragozteko asmoarekin ari diren talde armatuetako kideen ekintza bat jasan duten pertsonak. Berez talde armatu bateko kide izan gabe asmo horiekin berekin ari direnek egindako ekintzaren bat jasaten dutenak ere talde horretakotzat joko dira.

Laneratzeko betebehar hau egokitu egin daiteke baldin eta kontratuaren esleipenak aurreko langileria subrogatzea baldin badakar edota kontratu berriak ez badu kontratista beste inor kontratatzera behartzen. Kasu horiek salbuespenak dira; arrazoitu eta frogatu egin behar dira.

Aurreko paragrafo horretako kasua alde batera utzita, kontratuan ezarritako prestazioa gauzatzen arituko diren langileen % 20 enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak izateko betebeharra ezin betetzea ondoko kasuetan baino ez da onartuko: enplegu-zerbitzu publikoek eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek enplegu-eskaintzari erantzun ezin diotenean eta ezintasun hori egiaztatua denean; edo ekoizpena edo antolamendua, edo inguruabar teknikoak edo ekonomikoak direla-eta ezinezkoa denean. Kasu hauetan, kontratuaren xede diren prestazio-moten arabera egokia izanez gero, kontratistak kontratuaren zenbatekoaren % 5 gutxienez azpikontratatu behar die 2273/1985 Errege Dekretuan jasotako Lan Zentro Berezien Erregistroan edo abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Laneratze-enpresen Erregistroan inskribatutako enpresei. Horretarako,

enpresa esleipendunak aipatutako erregistroetan inskribatutako enpresen zerrenda eskatu behar dio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari.

40.4. - EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BALDINTZAK

Kontratua egikaritzerakoan, kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatu behar du, hala tratuan nola enplegua lortzeko aukeran, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, kontratua azkentzean, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupenean eta antolaketan. Halaber, kontratua gauzatzerakoan, kontratistak edo azpikontratistak lanean ari diren pertsonei bizitza pertsonala, familiakoa eta lana uztartzen laguntzeko neurriak ezarri behar ditu.

Gainera, 10 langile baino gehiago dituzten kontratistek kontratua egikaritzen ari diren langileen kontrako sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena saihesteko neurriak bermatu behar dituzte, hala nola: jardunbide onerako kodeak prestatzea eta zabaltzea; informazio-kanpainak edo prestakuntza-ekintzak egitea; jazarpenari aurre hartzeko eta jazarriak izan direnen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko prozedura espezifikoak ezartzea.

Kontratua egikaritzeko langile gehiago kontratatu behar badira eta kontratistaren langilerian emakumeen ehunekoa desorekatuta badago, gutxienez emakume bat kontratatu behar du kontratuak irauten duen aldi osorako, edo aldi baterako ari den emakume baten kontratua mugagabe bihurtu. Langile talde desorekatua izango da langile guztien artean emakumeak % 40 baino gutxiago badira.

Bestalde, genero-ikuspegidun estatistikak aurkeztuko dira kontratuaren bukaeran; hortaz, datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira.

Kontratatutako zerbitzua gauzatzeko sortzen den dokumentazioa, publizitate, irudi eta material guztietan hizkera ez-sexista erabilko da, emakumeen kontrako diskriminazioa edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestuko dira eta berdintasunaren aldeko irudiak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero-rol eta identitate pluraltasuna bilduz

40.5.- ENPLEGUAREN KALITATERAKO ETA OINARRIZKO LAN-ESKUBIDEAK BERMATZEKO BALDINTZAK

Kontratistak langileen % 30ek gutxienez kontratu mugagabea edukitzeko betebeharra hartzen du bere gain. Aurrekoa ez da bete beharko enpresan kontratu mugagabea dutenen ehunekoa langileria osoaren % 80 baino gehiago den kasuetan.

Ehuneko hori kalkulatzeko, kontratua egikaritzeko behar diren langileen guztizko kopurua hartuko da oinarritzat; kopuru horretan, kontratua egikaritzen ari diren azpikontratisten langileak ere sartuko dira.

Enpresa esleipendunak, gainera, ekoizpen-kateko langile guztien oinarrizko lan-eskubideak errespetatzen direla bermatu behar du. Horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko hitzarmenak betearazi behar ditu, ondokoak, besteak beste: askatasun sindikalari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak; nahitaezko edo derrigorrezko lana kentzeari buruzkoak; arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, jatorri nazional edo jatorri soziala direla-eta enpleguaren eta okupazioaren arloetan gertatzen den diskriminazioa kentzeari buruzkoak; haurren lana abolitzeari buruzkoak.

40.6.- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BALDINTZAK

Kontratistak honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

- Prebentzio-planarekin bat etorriz, zuzendaritza-lanetan diharduten eta beren jarduera

eta erabakietan laneko arriskuen prebentzioa integratzeko beharrezko prestakuntza jaso duten pertsonak edukitzea langilerian.

- Prebentzio Planeko egiaztatze-prozeduran ezarritakoari jarraituz, prestazioan laneko segurtasunerako eta osasunerako arrisku berezia ekar ditzakeen elementuak aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzea prebentzio-antolaketaren bidez. Prozedura horretan, arriskuen ebaluazioak edo segurtasun- eta osasun-planak ezartzen dituen babes-neurri kolektiboak aldian-aldian egiaztatzea finkatuko da, baita norbera babesteko ekipamendua erabiltzen dela egiaztatzea ere.
- Etorkinek parte hartzen badute kontratua gauzatzen, komunikazioa eraginkorra izateko prozedurak finkatuko dira, prebentzio-sistema egokia dela ziurtatzeko.

41 KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

41.1.- KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratuaren ondorioz kontratistak eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala da. Administrazioak idatzizko baimena eman ezean, kontratistak eta berak kontratua gauzatzeko izendatutako pertsonek ezin dute euren onurarako erabili, ez eta beste inori eman ere, kontratatutako lanei buruzko informaziorik edo daturik, edo kontratua gauzatzea dela eta eskura dezaketen informaziorik edo daturik. Beraz, eskura dauzkaten bitarteko guztiak erabili behar dituzte lanaren emaitzak eta informazioa isilpean gordetzeko (SPKLren 133 artikulua). Ildo beretik, datu pertsonalik erabili behar ez den lanetan enpresak eta haren langileek ezin dute eskuratu halako daturik, eta isilpean mantendu behar dituzte zerbitzua egitean ezagutzen dituzten datu guztiak (Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea garatu duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuko 83. artikulua).

41.2.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Datu pertsonalen tratamendutzat ulertzen da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak erkatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Kontratu hau betetzeko, «Kontratazioaren kudeaketa» izeneko tratamenduan agertzen diren datu pertsonalak tratatu beharko ditu kontratistak, eta dagokion kontratazio-organoa izango da tratamendu horren organo arduraduna (aurrerantzean tratamenduaren organo arduraduna).

Horrek esan nahi du kontratista izango dela tratamendu-eragilea, eta unean-unean indarrean den araudia bete beharko duela, datu pertsonalak behar bezala tratatuz eta babestuz, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Baldin eta kontratistak beste helbururen batekin erabiliko balitu datuak, edo kontratuan edo indarrean den araudian ezarrita dagoena bete gabe jakinarazi edo erabiliko balitu, tratamenduaren organo arduraduntzat hartuko litzateke kontratista ere, eta gaizki egindako arau-hausteen erantzule izango da.

«Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehatz dago deskribatuta zein datu pertsonal babestu behar den, bai eta kontratistak zein tratamendu egin eta zein neurri ezarri behar dituen.

Baldin eta, kontratuaren betearazpenaren ondorioz, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean ezarritakoa aldatu behar izango balitz momenturen batean, arrazoiak emanda eskatu beharko du kontratistak, eta zein aldaketa egin nahi duen zehaztu. Tratamenduaren arduraduna ados egongo balitz eskatutakoarekin, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskin eguneratu bat egingo du, eta bertan zehatz bildu beharko da egin behar den tratamendua.

41.3.- Tratamendu-eragilearen estipulazioak.

Klausula honetako betebeharrak eta baldintza-agiri hauetako «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskina dira, izan ere, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (aurrerantzean DBEO) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 28.3 artikuluan eskatzen den tratamenduaren enkargu-kontratua, tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren artean sinatuko dena tratamendu-eragile gisa jarduten duenean.

Baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusi bezala ordainduko dira betebehar horiek betetzeko egin behar diren prestazioak; era berean, zerbitzu-kontratu honen iraupen bera izango dute eta, luzatzekotan, kontratuaren epe berberetan luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratua amaitzean, indarrean jarraituko du sekretu-eginbeharrak, denbora-mugarik gabe, betearazpenean zerikusia duten pertsona guztientzat.

Kontratu honen objektua betetzeko, ez da beharrezkoa izango kontratistak tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizun den beste datu pertsonal batzuetarako irispiderik izatea; horrenbestez, ez du baimenik izango «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztuta ez dauden beste datu pertsonal batzuetarako irispidea izan edo tratatzeko.

Baldin eta kontratua betearazi bitartean gorabeheraren bat gertatuko balitz eta, ondorioz, tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizunpekoak diren datu pertsonaletarako irispidea izango balitz (ustekabean edo oharkabean) «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean aipatu ez den moduren batean, kontratistak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, zehatzago esanda datuak babesteko ordezkariari, gehienez 72 orduko epean.

Kontratistak konpromisoa hartzen du jarraian zerrendatuko diren betebeharrak betetzeko, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztutakoarekin osatuta, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Hona hemen:

a) Baldintza-agiri honetan eta kontratua betearazteko aplikatu behar diren gainerako kontratu-dokumentuetan dokumentatuta dauden jarraibideen arabera tratatuko ditu datu pertsonalak, bai eta tratamenduaren arduradunak unean-unean emango dizkion jarraibideen arabera ere, horrelakorik balego.

Kontratistak berehala jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari baldin eta, bere ustez, jarraibideren bat ez badator bat unean-unean aplikatu behar den datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin.

b) Datu pertsonalak ez ditu erabili edo aplikatuko kontratuaren objektua betearaztea ez den beste helbururen batekin.

c) Segurtasun-irizpideei eta DBEOren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz tratatuko ditu datu pertsonalak; era berean, eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu.

Bereziki, eta mugarik gabe, hitzematen du «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztu diren arrisku-maila eta segurtasuna babesteko neurriak hartuko dituela.

d) Erabateko konfidentzialtasuna mantenduko du kontratua betearazteko eskuratu ahal izango dituen datu pertsonalei buruz, bai eta datuen tratamendutik eskuratuko dituenei buruz ere, kontuan hartu gabe zein euskarritan jaso dituen datuok. Betebehar hori zabaldu egingo da kontratistaren kontura datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte har lezakeen pertsona guztietara. Kontratistak esan beharko die mendeko pertsona horiei sekretu-eginbeharra bete behar dutela, eta zerbitzua ematen amaitu ondoren edo bertatik bereizi ondoren ere mantendu beharko dela eginbehar hori.

e) Baldintza-agiri honen objektu diren datu pertsonalak tratatzeko baimena izango duten pertsonen zerrenda egin beharko du. Halaber, bermatu egin beharko du pertsona horiek konpromisoa hartzen dutela, beren-beregi eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko edo bidezko segurtasun-neurriak betetzeko, behar bezala jakinarazi beharko zaizkiela. Gainera, tratamenduaren arduradunaren eskura izango ditu egiaztagiri horiek.

f) Bermatu egingo du datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza emango diela datuok tratatzeko baimena duten pertsonei.

g) Datu pertsonalak ez dizkie hirugarrenei lagako (komunikatuko), ez eta kontserbatzeko ere; salbuespena izango da tratamenduaren arduradunaren aurretiazko eta beren-beregiko baimena izaten bada kasu bakoitzean.

h) Datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du, baldin eta DBEOren arabera beharrezkoa bada edo borondatez hala erabakitzen bada, eta izendapen horren berri eman beharko dio tratamenduaren arduradunari, baita datu pertsonalak babesteko kontratistak ordezkari gisa izendatu d(itu)en pertsona fisikoa(k) nor d(ir)en eta harekin/haiekin harremanetan ipintzeko datuak ere (tratamendu-eragilearen ordezkariak), datu pertsonalen tratamenduari buruzko araudia betetzeko arduraduna(k) izango d(ir)ela alderdi legal, formal eta segurtasunekoetan.

i) Zein datu pertsonaletarako irispidea izan duen, kontratistak tratamenduaren ondorioz zein datu pertsonal sortu duen, datu horiek zein euskarri edo dokumentutan dauden, baldintza-agiri honen objektu den kontratu-prestazioa amaitu ondoren datu eta euskarri horiek itzuli edo suntsitu beharko ditu, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean islatu den tratamenduaren organo arduradunak erabakitakoaren arabera. Ezin izango dira suntsitu baldin eta legez edo Europako

Erkidegoko zuzenbideko arauren baten ondorioz kontserbatzeko baimena edo agindua ematen bada.

Hala ere, tratamendu-eragileak datu pertsonalak kontserbatu ahal izango ditu tratamenduaren organo arduradunarekin izandako harremanetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean. Horrelakoetan, blokeatuta eta ahalik eta denborarik laburrenean kontserbatuko ditu datu pertsonalak, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu epe hori amaitzean.

j) «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean zehaztu diren tratamenduaren sistema eta gailuetan (eskuzkoak zein automatizatuak) eta lekuetan egin beharko du datu pertsonalen tratamendua. Ekipamendu hori tratamenduaren organo arduradunaren kontrolpean egon liteke, edo kontratistaren zuzeneko edo zeharkako kontrolaren pean, edo tratamenduaren organo arduradunak aurretiaz eta idatziz beren-beregi baimendu dituen beste batzuen kontrolpean, aipatutako eranskinean ezarritakoaren arabera, eta beti kontratuaren objektua betearazteko esleitutako erabiltzaile edo profilei dagokienez.

k) Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo aplika daitekeen araudiaren arabera segurtasun baliokidea duen beste esparruren batean tratatu beharko ditu datu pertsonalak, eta ez ditu esparru horietatik kanpo tratatuko ez zuzenean ez baimendutako azpikontratisten bitartez, baldintza-agiri honetan edo gainerako kontratu-dokumentuetan ezarritakoaren arabera. Hala ere, salbuespena izango da baldin eta Europar Batasuneko zuzenbidearen arabera edo aplikatu behar duen estatu kideko zuzenbidearen arabera nahitaez egin behar badu, baldin eta «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean bestelakorik adierazten bada edo baldin eta tratamenduaren organo arduradunak beren-beregi hala agintzen badu.

Baldin eta zuzenbide nazionalaren ondorioz edo Europar Batasuneko zuzenbidearen ondorioz kontratistak nahitaez egin behar badu nazioarteko datu-transferentziaren bat, idatziz emango dio tratamenduaren organo arduradunari legezko betebehar horren berri tratamendua egin baino lehen (behar besteko aurrerapenaz), eta bermatu egingo du tratamenduaren organo arduradunari aplikatzekoak diren legezko betekizun guztiak beteko direla, salbuespena izango dela baldin eta aplikatu behar den zuzenbideak debekatzen badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuen ondorioz.

l) Baldin eta bere erantzukizunpekoak diren datu pertsonalen segurtasuna moduren batean urratzen bada eta horren berri badu, berehala eta arretaz jakinarazi beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, gehienez 72 orduko epean. Gainera, gorabeheraren inguruko dokumentazioan eta komunikazioan eragina izan dezakeen informazio oro helaraziko dio. Gauza bera egin beharko du baldin eta hutsegiteren bat gertatu bada informazioa tratatu eta kudeatzeko duen sisteman, arriskuan ipintzen badu datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna, edo konfidentzialtasuna urratu ahal izan bada, kontratua betearazi bitartean eskuratutako datu eta informazioak hirugarren pertsonen esku ipintzearen ondorioz, zein interesdun zehatzen konfidentzialtasuna galdu den ere zehaztuz. Hori guztia DBEOren 33. artikuluaren arabera egingo da.

m) Ahalik eta lasterren jakinaraziko dio tratamenduaren organo arduradunari interesdunen batek dagokion eskubideren bat erabiltzen badu bere aurrean (datuak irispidean izateko eskubidea, datuak zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak, datuen aurka egiteko eskubidea, datuen tratamendua mugatzeko eskubidea eta datu pertsonalen eramangarritasun-eskubidea; edo aplikatu beharreko araudiak aitortutako

beste edozein eskubide; edo erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea).

Berehala jakinarazi beharko da hori, eskubidea erabiltzeko eskabidea jaso eta hurrengo lanegunean beranduenez. Jakinarazpenarekin batera, froga bidez identifikatu beharko da eskubidea erabili nahi duen pertsona, eta, hala badagokio, dokumentazioa eta eskabide hori ebazteko garrantzitsua izan litekeen bestelako informazioa ere gehitu beharko da.

Ahal den guztietan, laguntza emango dio tratamenduaren organo arduradunari, dagokiona bete eta eskubidea erabiltzen duen pertsonari erantzun ahal izateko.

n) Tratamenduaren organo arduradunarekin batera egingo du lan segurtasun-neurrien arloan dituzten betebeharrak betetzeko, segurtasun-neurrien arrakalak (lortutakoak eta saiatutakoak) agintaritza eskudunei edo pertsona interesdunei komunikatu eta/edo jakinarazteko eta datu pertsonalen babesaren eta horri buruz agintaritza eskudunei egindako aurretiko kontsulten eragin-ebaluazioak egiteko, eskura duen informazioa eta tratamenduaren izaera kontuan hartuta.

Era berean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du, hala eskatzen dionean, baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan aurreikusitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko behar den informazio guztia, eta lankidetzan arituko da tratamenduaren organo arduradunak, hala badagokio, egingo dituen auditoretza eta ikuskapenetan.

ñ) Idatziz eraman beharko du, baita formatu elektronikoan eta DBEOren 30.5 artikuluan islatutako kasuetan ere, tratamenduaren organo arduradunak egin dituen tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistro bat, eta DBEOren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak agertu beharko dira gutxienez bertan.

o) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren eginbeharra betetzen duela egiaztatzen duten ebidentziak izatea, esaterako betetze-mailaren edo auditoretzen emaitzen aurretiko ziurtagiriak, eta tratamenduaren organo arduradunaren esku ipini hala eskatzen dizkionean. Halaber, kontratua indarrean egon bitartean, tratamenduaren organo arduradunaren esku ipiniko du unean-unean egindako informazio, ziurtapen eta auditoretza oro.

p) Egingo diren datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dio tratamenduaren organo arduradunari, biltzeko unean. Datuak biltzen hasi baino lehen, tratamenduaren organo arduradunarekin adostu beharko da nola idatziko den eta zein formatutan emango den informazioa.

42 EGINDAKO LANEN JABETZA ETA JABETZA ESKUBIDE INDUSTRIAL ETA INTELEKTUALAK

42.1.- LANEN JABETZA

Kontratatutako lanen edozein fasetatik eratorritako produktuak administrazioaren jabetzakoak izango dira. Hala bada, noiznahi eskatu ahal izango du prestazioen zati bat emateko, baldin eta behin betiko lan-programarekin bat badator eta lanak eragozten ez badira.

Era berean, prestazioa ezarritako epea baino lehenago jaso dezala eska diezaioke aholkularitza-lana ematen duenak administrazioari; administrazioak erabakiko du eskaera hori onartu edo ez.

42.2- JABETZA INDUSTRIALA, INTELEKTUALA, LOKUZIO-ESKUBIDEAK, IRUDI-ESKUBIDEAK ETA ERABILITAKO ELEMENTUEN GAINEKO EDO LORTUTAKO PRODUKTUAREN GAINEKO BESTE ESKUBIDE BATZUK.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babespean dauden produktuak garatzea eta eskaintzea objektu duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori botere adjudikatzaileari laga beharra.

Ondorioz, ekoizpenaren jatorrizko formatuz gain, jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak edukiko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, eta bereziki lortutako obra edo produktua erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean zabaltzeko eta eraldatzeko eskubideak, eta ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen gainerako guztiak. Jabetza intelektualeko eskubide horiek modu esklusiboan edukiko ditu, sinatzen den egunean dauden ustiapen-modu edo/eta euskarri guztietan, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginean aurreikusita dagoen gehieneko iraunaldian, eta munduko herrialde guzti-guztietan izango dira indarrean, salbuespenik gabe.

Eskubide horren titulartasunpean dago lana edo azken produktua, eta horrez gain lan, zirriborro, eskema, aurretiazko dokumentu eta fluxu-diagrama guztiak, eta, multzoan hartuta, garapenerako egin diren eta jabetza intelektualaren eta industrialaren mendean egon daitezkeen lan guztiak ere bai.

Kontratatutako lanaren emaitzan txertatuko diren aurretiazko kontribuzioen gainean hirugarrenek eduki ahal dituzten erreserbei eta legezko eskubideei buruzko **informazio zehatza eman behar dio** kontratistak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari. Kontratistak nahitaez bermatu beharko du eskubide eta erreserba horien mendean dauden elementu guztien eskuragarritasuna, eta bere gain hartuko ditu horrek ekar ditzakeen kostuak.

Kontratistak bere gain hartu behar du eskubide horien inguruko erreklamazio guztien erantzukizuna, eta bere kontura izango dira ordainketa guztiak, eta, gainera, erreklamazioek sortzen dituzten kalte-galeren ordaina eman beharko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, ordezkaritza- eta defentsa-gastuak barne.

Kontratuaren objektua **aplikazio informatikoak** egin eta garatzea denean, aurreko paragrafoan azaldu den hirugarrenen erreserbei eta legezko eskubideei buruzko informazioan nahitaez azaldu beharko dira erabilitako iturri guztiak, bertsioak eta jatorria, osagai bakoitzean aplikatutako lizentziak, eta konpilazioan ala egikaritzapenean erabili al diren.

Kontratistak eta prestatze-lanetan aritu diren pertsonek ezin izango dute erabili lana beren onurarako, ez kontratatutako lanaren filmazio, testu, marrazki, argazki edo antzekoen atalak hirugarren batzuei eman, ez eta edukia osorik ez partzialki argitaratu ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak idatzizko baimena berariaz eman ezean. Era berean, ez dira saiatuko kontratutik eratorri ahal direnen berdin-berdinak edo antzekoak diren jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubiderik erregistratzen, eta eginbehar horrek iraun egingo du kontratua amaitzean ere. Nolanahi ere, kontratista izango da betebehar horiek ez betetzeagatik sortzen diren kalte eta galeren erantzulea.

Kontratistak konpromisoa hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin lankidetzan aritzeko, eta alde horretatik, administrazio horrek eskatzen dion dokumentazio guztia sinatu beharko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio

Orokorrak klausula honetan aipatzen diren eskubide guztiak eskura ditzan, edo haren alde babes ditzan.

43 LAN AKASTUNAK EDO GAIZKI GAUZATUAK

Administrazioak uste badu egindako lana ez datorrela bat kontratuan ezarritakoarekin, HAKLEOren 203. eta 204. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da; aldiz, prestazioa ez bada hartzeko modukoa, HAKLEOren 204. artikuluan eta agiri honetako klausuletan xedatutakoa aplikatuko da.

44 PENALITATEAK

Kontratazio-organoak zigorra ezarri ahal izango dio kontratistari ondoren adierazten diren ez-betetzeengatik, SPKLren 192. artikuluan ezarritakoari jarraituz (zenbatekoak beherago azalduko dira):

a) Atzerapenak, SPKLren 194. artikuluan aurreikusitako zenbatekoen guztizko epea edo epe partzialak betetzean.

b) Prestazioa gaizki betetzea, ez betetzea edo gaizki betetzea giza baliabideen esleipen-konpromisoa, hizkuntza-baldintzak edo bestelako egikaritza-baldintza batzuk, kontratuaren prezioaren % 1eko zenbatekoan, kontratazio-organoak ez-betetzea larria edo oso larria dela modu arrazoituan jotzen badu salbu; kasu horretan, % 5eraino heldu ahalko da lehen kasuan eta % 10eraino bigarrenean. Haustea edo ez betetzea behin eta berriro gertatzea kontuan edukiko da larritasuna finkatzeko..

c) Azpikontrataziorako debeku, betebehar, baldintza eta gainerako betekizunak urratzea, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zenbatekoarekin.

Enpresa kontratista berandutu egin dela adierazteko ez da beharrezkoa izango administrazioak aldez aurretik agindurik ematea.

Ikasleen ebaluazioa, irakasleen kualifikazio tekniko eta profesionala, giza baliabideak eta baliabide materialak izendatzeko konpromisoa, hizkuntzaren inguruko baldintzak, emakumeen eta gizoneen berdintasunaren esparruko baldintzak, edo kontratua egikaritzeari buruzko beste edozein baldintza ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik ezarri beharreko penalizazioa, kontratazio-organoak konpromisoa edo baldintzetako bat ez dela bete egiaztatzen duen unean ezarriko da. Penalitateak kontratistari egin beharreko guztizko ordainketetatik edo ordainketa partzialetatik kenduko zaizkio, edo bermetik, SPKLren 192. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratua oker gauzatzeagatiko penalitateak ordainduta ere, akatsak zuzentzeko legezko betebeharra izango du kontratistak.

Penalitatea ezartzeak ez du salbuesten kalte-galerak ordaindu behar izatetik.

45 KONTRATUA ALDATZEA

SPKLren 205. eta 203. artikuluetan zehaztutakoarekin bat egingo dira aldaketak kontratuan.

46 KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEEa OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA AZPIKONTRATATZEA. AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratua ezin izango da laga, jarraian adierazten denaren aurka joan gabe:

46.1.- KONTRATUA LAGATZEA.

46.1.1.- Kasuak.

SPKLren 98. artikuluan aurreikusita dauden kontratistaren ondorengotzako kasuei eta SPKLren 69.9 artikuluan aurreikusita dagoen ABEEaren osaeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, honako kasu hauetan laga ahal izango da kontratua:

1. Kontratista kaudimengabezia egoeran dagoenean, 2020ko maiatzaren 5eko Konkurtso Legearen Testu Bateratuaren 2. artikuluaren arabera, eta oraindik ez badu konkurtsoaren deklarazioa eskatu, eta, betiere, ez badute kaudimengabetzat jo beste prozedura batean.

2. Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi zaion negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

3. Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

46.1.2.- Prozedura.

1. Kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, lagatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

i. Kontratua lagatzea eskatzeko bidea ematen duen inguruabarra dagoela egiaztatzeko dokumentazioa.
ii. Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran jasotako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 bete behar den ala ez dioena, eta, bete behar izanez gero, betekizun hori betetzen den ala ez dioena. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoan jasota dauden mugak errespetatzen direla azaldu beharko du.

4. Txosten juridikoa.

5. Lagapena formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, lagatzeko baimena emateko eta kontratistari jakinarazteko.

7. Kontratua lagatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

8. Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

9. Lagapen-hartzaileak bermea gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

46.1.3.- Baldintzak.

46.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimen dezan, baldintza hauek bete behar dira:

1. SPKLren 214. artikuluko 2. apartatuan jasotako betekizunak betetzea.

2. Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri tekniko edo pertsonalak arrazoi erabakigarria ez izatea kontratua adjudikatzeko.

3. Lagapenak merkatuan lehiaren murrizketa ez ekartzea.

46.1.3.2.- Ez da baimenduko kontratuaren lagapena egitea baldin eta kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

46.1.3.3.- Eskritura publikoan formalizatu beharko da kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena.

46.1.3.4.- Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

46.2.- ABEEa OSATZEN DUTEN KIDEAK ALDATZEA

46.2.1.- ABEEaren osaeraren aldaketak berekin badakar bertako kideen kopurua handitzea, txikitzea edo kide bat edo batzuk beste batzuekin ordeztea, honela jokatuko da:

1. ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, aldatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

i. ABEEaren osaera aldatzeko bidea ematen duten inguruabarren justifikazioa.
ii. ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela eta ABEEa eratu behar duten enpresa guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik ez dutela dioten egiaztagiriak.

2. Kontratazio-organoaren ebazpena, prozeduraren hasiera erabakitzeko.

3. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 betearazi dela dioena.

4. Txosten juridikoa.

5. ABEEa osaera berriarekin formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.

6. Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko eta ABEE kontratistari jakinarazteko baimena ematen duena.

7. ABEEaren osaera aldatzeko baimena ematen duen kontratazio-organoaren ebazpena argitaratzea kontratatzailearen profilean.

8. ABEEa eskritura publikoan formalizatzea.

9. ABEEak beste berme bat gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. ABEEak lehenago emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta berria formalki eratuta eduki arte.

46.2.2.- ABEEa osatzen duen kide baten edo batzuen bategite, zatiketa nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea dela-eta sozietate xurgatzailea, bategitearen emaitza dena, banantzearen onuraduna edo jarduera-adarraren eskuratzailea ez bada ABEE honetako kideetako bat, baldintza orokorren 46.2.1 klausulan azaltzen diren izapideak beteko dira, kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez betearaztearen baldintza izan ezik.

46.2.3.- ABEEko kideren bat konkurtso-egoeran deklaratzen bada, likidazio-fasea irekita egonda ere, SPKLren 69.9 artikuluko c) letran xedatuta dagoenari jarraituko zaio, bat etorrita SPKLren 212.5 artikuluak kontratua betearazteko beste berme nahiko batzuk emateari buruz xedatzen duenarekin. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

1. ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, ABEEko kide bat edo batzuk konkurtso-egoeran daudela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, eskaera hauetakoren bat egiteko:

i. Kontratua betearazten jarraitzea gainerako kideekin. Kasu horretan, ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela dioten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

ii. Kontratua betearazten jarraitzea ABEEko hasierako kideekin, konkurtso-egoeran daudenak barne.

2. Baldintza orokorren 46.2.1 klausulako 2tik 9ra bitarteko puntuetan (3. izan ezik) azaltzen diren izapideak egitea. Eta, kontratazio-organoak ebazten badu ABEEak kide guztiekin jarrai dezala kontratua betearazten (konkurtso-egoeran daudenekin ere), kontratua behar bezala betearazteko besteko berme gehigarri nahikoak eman beharko ditu ABEE kontratistak, hain zuzen ere kontratazio-organoak bere ebazpenean adierazi dituenak.

46.3.- AZPIKONTRATAZIOA

Ez da baimentzen Esparru Akordio honetan oinarritutako kontratuen xede den prestazio nagusia azpikontratatzerik ere. Horren harira, honako hau ez da azpikontrataziotzat jotzen: esleipendunaz bestelako pertsona fisiko edo juridiko batek izaera instrumentaleko laguntza-zerbitzuak eskaintzea esleipendunak gauzatutako prestazioaren garapenean, zerbitzuaren egikaritza-prozesuan integratuta egonik ere, ez direnean kontratatutako azken produktuaren zati autonomo eta bereizia.

47 KONTRATUAREN AMAIERA

47.1.- BETETZEA ETA JASOTZEA

Kontratua beteta egongo da, kontratistak kontratuaren xedea osorik egin badu, betiere, kontratuko baldintzen arabera eta administrazioaren nahierara.

Kontratua betetzat jotzeko ezinbestekoa da administrazioak prestazioa hartzeko egintza edo adostasuna emateko egintza formal eta positiboa egitea kontratuaren xedea eman edo egiten denetik hilabete pasatu baino lehen. Ondorio horietarako, Administrazioaren aldetik kontratuaren arduradun gisa jardun duenak txosten teknikoa emango du aldez aurretik.

Administrazioak uste badu prestazioa ez dela moldatzen kontratuan ezarritakora, hautemandako akatsak edo okerrak zuzentzeko idatzizko jarraibideak emango dizkio kontratistari. Idazkian zuzenketak egiteko epea finkatuko da.

Kontratistak erreklamazioa aurkezten badu jarraibideen kontra, kontratazio-organoak ebatziko du.

Kontratistak ez badu idatzizko erreklamaziorik aurkezten jarraibideen kontra, haiekin ados dagoela pentsatuko da, eta antzemandako akatsak zuzendu beharko ditu. Prestazioa ez da onartuko, jarraibideak bete arte; onartutakoan, akta egingo da.

Kontratistak eskubidea du kontratatutako prestazioa gauzatzeari buruz administrazioak egiten dituen oharrak ezagutzeko eta ohar horiei buruz esateko duena entzun dakion.

Akatsak ez badira ezarritako epean zuzentzen, administrazioak onarpena ezetsiko du, eta ez du edukiko ezer ordaindu beharrik; eta, hala balegokio, ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Nolanahi ere, lanak ez badira moldatzen kontratuan ezarritakora eta errua ezin bazaio Administrazioari egotzi, kontratazio-organoak harrera ezetsi ahal izango du eta ez du edukiko ezer ordaindu beharrik; aitzitik, baliteke ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubidea edukitzea.

47.2.- BERME-EPEA

Hiru hilabeteko berme epea ezartzen da, lanaren jasotze-akta izenpetzen den egunetik zenbatzen hasita.

47.3.- LIKIDAZIOA

Onarpen- edo adostasun-akta egiten denetik hilabete igaro baino lehen kontratuaren likidazioa egin behar da, eta kontratistari jakinarazi behar zaio, bai eta horren emaitzako

saldoa ordaindu ere, egonez gero. Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz gero, kontratistak berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea edukiko du, merkataritzako eragiketetan ordaintzerakoan atzerapenik egon ez dadin berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

47.4.- BERMEA ITZULTZEA

Bermea behin likidazioa onartu ostean itzuliko da edo, hala dagokionean, kontratistari errurik egotzi gabe kontratua ebaztea erabakitzen denean.

48 KONTRATUA IRAUNGITZEA ETA EBAZTEA

Bete edo ebazten denean iraungiko da kontratua.

SPKLren 308. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratu bat iraungitzen denean, administrazio kontratatzaileari atxikita kontratuan ezarritako lanetan aritu diren pertsonen egoera ezin da inolaz ere egonkortu administrazio kontratatzailearen langile gisa.

SPKLren 313. artikuluarekin bat, SPKLren 211. artikulukoez gain, honako hauek izango dira kontratua ebazteko arrazoiak:

- ☐ Hasi behar zuen egunetik aurrera, kontratuak sei hilabete baino gehiago baldin badarama hasi gabe administrazioari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, non eta klausula-agirian ez den beste epe bat zehaztu. Kontratuan bertan jarriko du noiz zen hastekoa.
- ☐ Administrazioak kontratuan atzera egitea edo kontratua, berak erabakita, urtebete baino luzaroagoan etenda egotea, non eta klausula-agirian ez den beste epe bat ezartzen.

49 ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

Kontratazio-organoak du administrazio-kontratuak interpretatzeko eta haiek betetzean sortzen diren zalantzak ebazteko prerrogatiba. Halaber, sinatutako kontratuak aldatu eta suntsiarazi ahal ditu, SPKLean eta hura garatzeko xedapenetan ezarritako mugen eta baldintzen arabera.

Kontratazio-organoak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko prerrogatibez baliatuta eta organo eskudunen txosten juridikoa aztertu ondoren hartzen dituen erabakiak berehala bete beharrekoak dira.

50 ESKUMENEKO JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak du eskumena Esparru Akordio honetatik oinarritutato kontratuen esleipenari buruzko auzi-kontuak eta alderdien artean interpretazioari, aldatzeari, betetzeari, efektuei eta iraungitzeari buruz sortutako zalantzak ebazteko, SPKLren 27. artikuluan xedatzen den moduan.